



MIRARI ZILAURREN

20 URTE LANAREN
LEHENDAKARITZAN

“Sekulako ikasgaia izan da”

Laneko osasuna

Kooperatibak, Osarten gidari hartuta, lan-segurtasunaren eta pertsonen osasuna zaintzearen adibide bikainak dira. Eredu digitalago, gizatiarrago eta moldagarriagoetara trantsizio betean dagoen esparrua da.

TU Lankide euskarazko eta gaztelaniazko testuekin osatzen dugu. Baina orain beste irakurketa aukera batzuk eskaintzen dizkizugu.

Imprimimos TU Lankide con textos en euskera y castellano. Pero ahora te presentamos diferentes versiones.

Aukera gehiago!

¡Más opciones!

634. zenbakia euskaraz ikusi dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder al número 634 en castellano en nuestra web.



O puedes ver la versión impresa en nuestra web.



Salud laboral

Las cooperativas, con Osarten al frente, son un buen ejemplo de compromiso con la seguridad y la salud de las personas. Un ámbito en plena transición hacia modelos más digitales, humanos y adaptativos.

Osasuna, lehen lerroan

Lan eremuan pertsonak zaintzea kooperatiben DNaren alderdietako bat da. Langileen segurtasuna, osasuna eta ongizatea legezko betebeharrak haratago doazen faktoreak dira gure kooperatibetan: konbikzio etikoa da eta ulertua da giza eta enpresa garapenerako funtsezko zutabe gisa. Konpromiso hori gauzatu da duela ia 25 urte prebentzio zerbitzu mankomunatu bezalako ekimen aitzindari bat abian jarri zenetik. Osarten buru duen zerbitzua da, gure kooperatibek zerbitzu horrekin bat egin dute, eta erreferentziazko erakunde bihurtu da Euskadiko laneko segurtasunean, osasunean eta ongizatean garrantzitsuak diren agenteen mapan. Lankidetzaren formula bat, kasu honetan lan osasunaren esparruari lotua, beste behin ere erakusten duena elkartuta biderkatu egiten direla gure gaitasunak.

Laneko arriskuen prebentzioa eta pertsonen osasuna ere garatuz doazen diziplinak dira. Ikuspegi berriak sortu dira langile berrien artean, kontziliazioa, malgutasuna eta ongizatea lehenesten dituztenak, besteak beste. Era berean, belaunaldi gazteenek nahiago dute langileen osasun mentala modu proaktiboan kudeatzen duten enpresetan lan egitea.

Sektorearen joerek eredu digitalagoetarako trantsizioa adierazten dute, egungo eskakizun berrietara egokituagoak eta irtenbide pertsonalizatuagoetara bideratuagoak. Eta hori guztia langile kualifikatuaren eskasarekin eta segurtasunaren eta prebentzioaren pertzepzio kulturalari buruzko txipa aldatzeko premiarekin, enpresen eta langileen artean partekatutako erantzukizunaren balioa gehiago areagotuz.

Lankidetzaren ekosistema, kudeaketa gaitasuna eta, batez ere, pertsonen zaintzarekiko sentsibilitatea funtsezko faktoreak izango dira osasunaren arloko erronka berriei aurre egiteko.

Etorkizuneko erronka horiek guztiek ikuspegi estrategiko partekatua beharko dute, lankidetzaren sakontzea eta berrikuntzaren aldeko apustu sendoa. Gure elkarreraginaren ekosistema, gure kudeaketa gaitasun frogatua eta, batez ere, pertsonen zaintzarekiko sentsibilitatea funtsezkoak izango dira erronka berriei aurre egiteko. Pertsonak zaintzea etorkizuna zaintzea delako. —



TULankide Trabajo y Unión (T. U. Lankide),
Arizmendiarrietak 1960ko irailean sortutako aldzkaria.

ARGITARATZAILEA **OTALORA**. Azatza. tulankide@mondragoncorporation.com.

ZUZENDARIA **Javier Marcos** jmarcos@mondragoncorporation.com.

KOORDINAZIOA **Iban Garate** igarate@mondragoncorporation.com.

ERREDAKZIO KONTSEILUA **Joxean Alustiza, Susana Azpilikueta, Jon Ander Blanco, Idoia Bustinduy, Ander Etxeberria, Iñigo Iñurrategi, Leire Mugerza, Javier Sotil, Ander Toña, Jone Batiste Zabala.**

ERREDAKZIOA **Arteman Komunikazioa: Usua Agirre, Amaia Balentziaga, Gorka Etxabe, Uxue Morales.**

DISEINUA ETA MAKETAZIOA **Josán Martínez**. INPRIMATZAILEA **Centro Gráfico Ganboa.**

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK **LABORAL Kutxa, Eusko Jaurlaritzak/Gobierno Vasco.**

■ PERTSONAK

14

LANBIDEA

Javier Benito, BATZeko azpiegituren eta zibersegurtasunaren koordinatzailea

“Gakoa? Eraso bat gertatu aurretik prebenitzea”.



23

NIRE AUKERA

Malen Sarasua, Leartiker

“Behi esne sektoreak hurrengo hamarkadan bilakaera polita izan dezake”.



50

ELKARRIZKETA

Osasun eskola+ proiektuko zuzendaria MLAKOOP-en

“Teknologia digitala osasunaren zerbitzura jartzen dugu”.

56

EUSKAL KULTURA

Asier Altuna, zinema zuzendaria

“Film onak egin nahi ditut. Hori izan da nire erronka”.

24

AZALEAN

Prebentzioaren erronkak

Lan arriskuen prebentzioa eraldaketan murgilduta dago, bete-betean. Osarten ere horretan ari da, hurrengo urteotarako erronkak marrazten.



10

**Mirari Zilaurren
LANA KOOPERATIBAREN
PRESIDENTE OHIA**

“Une gozoa bizitzen ari gara; kargua uzteko momentu egokia”

IRITZIA

13 Ander Etxeberria
**GALDU DA ESPIRITU
KOOPERATIBOA? VI**

22 Rafa Pol
**MONDRAGON, CHARLIE
KIRK-EN ARABERA**

41 Illart Azkarate
**IKASTURTE HASIERA:
NORABIDE GAURKOTUAK,
BETIKO KONPROMISO
SENDOAK**

60 Lander Beloki
**GARAPEN JASANGARRIAREN
GAINEKO ERAGINA
[SDIM25]: ZER BERRI?**



50

■ ENPRESA

6

SAREAN

Lehen sektorea eraldatzen

38

MONDRAGON PEOPLE

ATEAK, talentua erakartzea

MONDRAGONeko Talentu Komunitatearen urteko jardunaldian talentu juniorra erakartzeko harrobiko estrategia aurkeztu da.

58

ERREPORTAJEA

**Bilbao Bizkaia
Digital Factory**

MONDRAGONek asmo handiko proiektu honetan parte hartzen du, teknologia digitalean erreferente izan dadin.



56

■ PLANETA

54

ERREPORTAJEA

**Urriaren 29tik 31ra: Global
Social Economy Forum**

Bordelen ospatuko den bi urtez behingo topaketa "lurralde erresilienteetarako trantsizio justuan eta biztanleen ongizatean" zentratzen da.

64

ERREPORTAJEA

Lanbidez, birziklatzailea

Mundukidek Kolonbian 10.000 birziklatzaile baino gehiagoren lana duintzen laguntzen du.

66

GIJH

Aukerak eta erronkak klima-aldaketari aurre egiteko

Azaroan Belémen (Brasil) egingo da COP30 hitzordua. Ia 200 herrialde bilduko ditu, eta helburua da mundu mailako ahaleginak koordinatzea.



58



64

■ KOOP

16

ERREPORTAJEA

MONDRAGON Health

"Elkarrekin, proposamen sendoago eta berritzaileago bat eskainzen dugu".

18

KLIKI

Kide 50 urte

Kidek 50. urteurreneko jai ekitaldiak aurkeztu ditu.

44

ELKARRIZKETA

Aitor Txurruka, Goimek

"Balio erantsi haundiagoko sektoreetara jauzia egin nahi dugu".

46

EUSKARALAN

Kooperatibak eta euskara

Lan-ingurunean ere euskara ikasi daiteke. Duela gutxi ireki da matrikulazio-epea.

52

LAGUNARO

**LagunArok webgunea
berritu du**

Webgunea eta App-a estreinatu ditu; arreta digital hurbilagoa, intuitiboagoa eta sinpleagoa eskaintzeko.

Lehen sektorea eraldatzen: berrikuntza eta jasangarritasuna ardatz

Lehen sektorea, gure lurraldearen eta gizartearen oinarria, une erabakigarrian dago. Klima-aldaketak, baliabideen kudeaketak eta teknologia berriek erronka handiak sortzen dituzte nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza sektoreentzat. Hala ere, erronka horiek berrikuntza zein jasangarritasun handiagora trantsizioa bizkortzeko aukera izan daitezke.

Prozesu horretan, ekosistemako hainbat eragilek aktiboki parte hartzen dute: ekoizleek, zentro teknologikoek, talentuak eta enpresek. Bakoitzak modu kooperatiboan laguntzen du landa-eredu lehiakorrago, erresilienteago eta ingurumena errespetatzen duena eraikitzen.

Jarraian, gure landa-ingurunearen eraldaketa positibo hori bultzatzen duten ekimen eta proiektuen adibide batzuk aurkezten dira.

MONDRAGONek NÉBODAn inbertitu du

CDTI Innovación eta UNIRISCO GALICIArekin batera, eta MONDRAGON Venturesen bitartez, barne-nekazaritza bertikalean espezializatutako startupean inbertitu du MONDRAGONek. Sektore estrategikoetan eta etorkizunekoetan negozio berrien sorrera bultzatzeko helburua du.



Tokixan proiektua: Elikadura burujabetza helburu

Debagoieneko Tokixan egitasmoa aurkeztu dute, eskualdeko elikadura burujabetza sustatzeko. Proiektuak agroekologia, lehen sektorearen iraunkortasuna eta tokiko elikadura kate osoa hartzen ditu ardatz: ekoizpena, transformazioa, banaketa eta kontsumoa.

Fagorrek eta Debagoiena 2030 lankidetzak sareak parte hartzen dute, banaketa eta kontsumo prozesuak sistematizatzen lagunduz. Helburua tokiko elikadura sistema jasangarri eta kalitatezkoa eraikitzea da, lehen sektoreko lan baldintzak eta produktuen hurbiltasuna bermatuz.



Basque Culinary Centerrek eta AgroBankek Impulso Agro aurkeztu dute, nekazaritzako elikagaien alorreko talentu gazteen lehen belaunaldia

Ekimen honen bidez, nekazaritzako elikagaien sektorearen eta sektore gastronomikoaren oraingo eta etorkizuneko erronka handiak talentuz, berrikuntzaz eta konpromisoz garatzen ari diren 40 urtetik beherako 40 profesional aintzatetsi dira.



Animaliak garraiatzeko ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko zerbitzu berria Zubillaga Hiltegiaren eskutik

Animaliak errepidez garraiatzeko ibilgailuak garbitu eta desinfektatzeko zerbitzua jarri du martxan Zubillaga Hiltegiak, 638/2019 Errege Dekretuak ezarritako betebeharrak betetzeko helburuarekin. Zerbitzu honek lehen sektoreko profesionalen lana erraztu nahi du, haien ibilgailuak modu eraginkor eta arautuan garbitzeko eta desinfektatzeko aukera eskainiz, zoonosi guztiak saihestuz.



Saretzen, nekazaritzako elikagaien euskal sektorea eraldatzeko lankidetzak

Saretzen berrikuntza proiektua sustatu eta dinamizatu du Leartiker zentro teknologikoak. Landa ekoizle txikiei beren produktuak hobeto dibertsifikatu eta merkaturatu ahal izateko tresna eta ezagutza berriak ematea du helburu.



(EITB) Basotik: Euskadin suteak prebenitzeko baso-kudeaketa

Euskadik baso-suteak izateko arrisku handienari gingo dio aurre udazkenean, hego-haizeak bultzatuta. 1989ko suteek 30.000 hektarea kiskali zituzten, eta mugarri ezarri zuten eskualdean. Gipuzkoan, basoen kudeaketa iraunkorra Basotik fundazioaren esku dago, jabeek lurak zaintzen laguntzen dien fundazioaren esku, alegia. Bestalde, Bizkaian mendien kudeaketa profesionalizatu zen, eta Al- dundiak urtean 5 milioi euro bideratzen ditu horretara.



EITBk 2025.09.28an
emandako erreportajea

KRISTALEZKO NEGUTEGIAK, ZERUTIK

Bizkaian, Gernika eta Gatika inguruetan, ditu negutegiak Barrenetxe kooperatibak. Bertan hazten ditu tomate eta piper ederrak. Eta beste zenbait produktu ere bai; sasoian sasoikoak, eusko labeldun Gernikako Piperra edota Euskal Baserriko Zerba.

1 980tik Euskal Herriko barazki tradizionala ekoizten ari den nekazari profesionalen kooperatiba da Barrenetxe, aski ezaguna merkatuan eta askorentzat erreferentziazkoa erosketa-saskian barazkiak sartu behar direnean. Bizkaian, Butroe ibaiaren inguruetan, Gatikako lurretan, zeruak argitzen duenean kristalezko negutegiek Barrenetxeren benetako dimentsioa erakusten dute. MONDRAGONeko parte da Barrenetxe. Lehen sektorean, zero kilometroko ekoizpenean diharduena. Euskal Herrian, kristalezko negutegiak instalatzen lehenetarikoa izan ziren, sasoi hartan eta oraindik gaur, goi-teknologia sektorerako. Kristalezko negutegiek emaitza hobek eskaintzen dituzte. Inbertsio handiagoa eskatzen dute, bai, baina aldaketa klimatikoak hobeto kudeatzeko aukera eskaintzen dute, baita kalitatea hobeto neurtzeko aukera ere. Gaur egun, Barrenetxek bi ziklo kudeatzen dituzte urtean. Lehenengoa Gabon aurretik landatzen da eta bigarrena, ekainean.

GORKA ETXABE



Mirari Zilaurren

LANA KOOPERATIBAKO PRESIDENTE OHIA

“Kooperatibako presidente
izatea sekulako
ikasgaia izan da”

20 urteko bidearen ondoren, iritsi zaio agur esateko unea Mirari Zilaurreni [Oñati, 1967]. Presidente lanak ondo beteta, merezitako haize berria sumatzen du azalean, nahiz eta oraindik erretirorako urte batzuk geratzen zaizkion.

GORKA ETXABE

Lana kooperatibako presidente lez egin ditu azken bi hamarkadak. Ez da ba marka makala!! Seguruenik, guinness-a gure esperientzia kooperatiboan. 7.300 egunen bueltan presidente txapelarekin. Batzuk eguzkitsuak, itxaropentsuak eta ederrak. Beste asko, berriz, ilun-ilunak. Gorabeheraz betetako sasoia izan da, krisi larri eta une gogorrekin, baina bidearen amaieran pozik eta harro dago Zilaurren, “egin-dakoak eta bizitako esperientziak merezi izan baitu”.

Aurreneko urteetara egingo dugu. Nola gogoratzen dituzu hastapenak?

Presidentetzara iritsi nintzenean ez nekien oso ondo non sartzen nintzen. Egia da Kontseilu Errektorean nengoela idazkari gisa, Joseba Gonzalez presidente zela eta haren alboan eroso nengoen. Kooperatiban bi-hiru urte neramatzan, ikasketa prozesuan nengoen. Nire etxean ere, nire inguruan, ez zegoen kooperatiba tradizioarik eta, hortaz, dena zen berria. Lanak momentu ona bizi zuen. Kooperatibak irabaziak zituen, ekonomikoki eta sozialki sendo geunden. Ia 100 langileko taldea sortu genuen, eta konfliktoren bat izan bagenuen ere, laugarren erreleboaren ezarpenaren ingurukoa bereziki, ondo kudeatzen ari ginen.

Bat batean baina Josebak lanez aldatu eta zuk hartu zenuen kargua.

Halaxe izan zen, bai. 2005ean izendatu ninduten presidente, eta 2008an krisialdia etorri zitzaigun. Oso gogorra izan zen. Txekia-ko lantokia 2007an jarri genuen martxan eta hango merkatu berriari eskua hartzen ari ginen: lan-talde berriarekin dena martxan jarri beharra genuen. Eta Euskal Herrian krisiak estu jo gintuen. Oñatin merkaturik gabe geratu ginen eta erabaki oso gogorrak hartu behar izan genituen. Kolpe handia izan zen. Ikasgai izugarria.

Erabaki gogorrak aipatu dituzu. Zelakoak?

Erreubikazioei ateak ireki genizkien, 57 urterekin aurre-jubilazioak planteatu genituen eta, orohar, pertsonen konpromisoa izugarria izan bazen ere, bazkide askorentzat eta kolektiboarentzat une traumatikoak izan ziren. Denak ulergarriak. Sasoi gogorra bizi izan genuen. 84 bazkideetik 32ra pasa ginen. Eta hala ere, 32 pertsonarentzat lanik ez genuen. LagunAro EPSVren eta MONDRAGONen babesak ere izugarriak izan ziren, zuzendaritza aldatu genuen eta MONDRAGONeko presidenteordearen lidertzarekin, eta merkatura begira eginitako apustu berriekin aurrera atera ginen. Txekian ere asko ikasi dugu, merkatu ugari zabaldu dizkigu eta lehiakideak oso gertutik ezagutzeko aukera eman digu.

Orduko krisitik gaur egunera gauzak asko aldatu dira, ezta?

Bai, asko. Inbertsio ugari egin ditugu taula hobea egiteko eta lehiakorragoak izateko. Gaur hiru kapako taularen merkaturaren liderrak gara eta zutabearen merkaturaren ere bikain gaude. Berritua gara 70 bazkide. 130 langile ditugu Txekian eta Oñatin 90. Esan daiteke 2008ko krisiaren ondotik, 2017tik aurrera berriro hazkundean gaudela eta une gozoa bizi dugu, erronka eta proiektu berriekin. Horrexegatik guztiagatik presidente kargua uzteko une aproposa da.

“Esan daiteke 2008ko krisiaren ondotik, 2017tik aurrera berriro hazkundean gaudela eta une gozoa bizi dugula, erronka eta proiektu berriekin. Horrexegatik guztiagatik presidente kargua uzteko une aproposa da”

Ikasgaiak

Enpresa proiektua alde batera utzita. Nola bizi izan dituzu, ikuspegi pertsonaletik, azken 20 urteak?

Oso babestua sentitu naiz eta horrek asko lagundu dit. Taldean lanean, beti gertuko bidelagunekin, bidean aurrera egin dugu. Momentu oro izan dut babesa eta horrek asko lagundu dit aurrera jarraitzeko.

Agur esateko momentua dela erabaki duzu. Agian kooperatibaren unerik onenean.

Bai. Momentu onenean. Une egokia da eta trantsizio egoki bat egin nahi nuen bai niretzat zein Lana kooperatibarentzat. Gazteek erreleboa hartzeko sasoia da, eta belaunaldien arteko aldaketa orekatua egin behar dugu. Horrexegatik erabaki dut Presidentetza uztea. Gazteak erakarri behar ditugu gobernantza eremura.

Zenbat hazi da Mirari Zilaurren azken urteotan?

Askok. Dударik gabe. Ezagutza handiko pertsona interesgarriak ezagutzeko aukera izan dut eta hori beti da ona. Nire hazkundera handia izan da. Urte hauetan guztietan presidente kargua eta nire lanpostua uztartu ditut. Horrek ere beste ikuspegi bat eman dit, ez naizelako kooperatibaren egunerokotasunetik aldendu, nire kargua ez da beste kooperatiba batzuetan besteko instituzionala izan.

Momentu bereziren batekin geratzen zara?

Sasoi txarrenetan lan-bazkide batzuekin oso momentu traumatikoak bizi izan genituen. Erabaki gogorak hartu genituen baina nahiago dut bizitako momen-

tu onenekin geratu. Kooperatibako presidente izatea sekulako ikasgaia izan da.

Eta orain?

Trantsizio sasoian nago... edo gaude. Presidente berriak alboan izango nau antolakuntzan laguntzaile. Ez dut jubilatze asmorik oraindik, oraindik orain badut konpromisoa kooperatibarekin eta baita ilusioa ere. Arlo sozialean ere, Lana presente dago Oñatiko gizartean, kirolean eta kulturean. Herriaren egunerokotasunean gaude eta hori ere asko estimatzen dut.

Eta gero?

Ikusi behar. Jubilatzerakoan aktibo jarraitu nahiko nuke. Erakunderen batekin kolaboratzea ez dut baztertzen eta sasoi hori planifikatu nahi dut. Gainera kirola, lore-zaintza eta baratzea oso gustukoak ditut. Bi-hiru urte gehiago egingo ditut Lanan eta gero, geroak.

Azkenengo Batzar Orokorrean lankideen aitortza jaso zenuen. Ez da gutxi!

Baita hunkitu ere. Zeozer espero nuen, baina oparirik eta bertsorik ez. Oso hunkigarria izan zen. Lankide gehienak gerturatu zitzaizkidan eta oso eskertuta nago. Azken egunean ere sekulako babesa sentitu nuen. —

“Gazteek erreleboa hartzeko sasoia da, eta belaunaldien arteko aldaketa orekatua egin behar dugu. Horrexegatik erabaki dut Presidentetza uztea. Gazteak erakarri behar ditugu gobernantza eremura”

MOTZEAN

“Irakurlea naiz eta aspaldian hazkunde pertsonalaren arloko liburu asko irakurtzen ari naiz”

Bizitzeko leku bat.

Oñati. Sekulako ingurua dugu. Askok baloratzen dut gure herriak eskaintzen dituen aukerak, bereziki dugun natura bizi-biziak.

Txoko bat.

Aloña ingurua. Inspiratzailea da erabat. Tontorrean zaudenean eta etxetik begiratzekoan. Orduan ere ederra da.

Afizio bat.

Mendia dut oso gustuko. Natura. Tartetxo bat dudanean mendira gerturatzen naiz. Landareak, ortua... nire afizioek lurrarekin zerikusia dute.

Zinea.

Bai. Askok. Neguan gehiago. *Olympo* seriea gomendatzen dizut.

Musika.

Kontzertuak eta musika estilo ezberdinak gustuko ditut.

Liburu bat.

Irakurlea naiz, eta aspaldian hazkunde pertsonalaren arloko liburu asko irakurtzen ari naiz.



Ander Etxeberria

MONDRAGONeko Hedapen Kooperatiboaren arduraduna



GALDU DA ESPIRITU KOOPERATIBOA? (VI)

Arrasateko Esperientzia Kooperatiboko lehen enpresaren sortzaileek –Ulgor– ezer gutxi zekiten kooperatibei buruz. Enpresa konbentzionaletan lan egiten zuten bai fundatzaileek eta bai kooperatibetara salto egingo zuten beste herritarrek ere.

Arizmendiarieta bultza-tzailea, gizartea aldatu nahian, enpresa formula berri baten bila zebilen. Enpresa industrialei zegokienez, ezagutzen zituen produkzio kooperatibak, baina historian zehar ez ziren oso oparoak izan. Bestalde, ez zituen gutxies-ten Elkarte Anonimoek izan zitza-keten onurak. Horrela, Ulgor-era-ko diseinatzen ari zen estatutuen bertsio baten izenburua, 1956an, “Estatutos de la Sociedad Talleres Ulgor, S.A.” da. Arizmendiarieta-kin egin zuena esperimendu bat izan zen. Baina orduko legedian ez zuen lekurik. Ulgor produkzioan hasi eta hiru urtean –1956tik 1959ra– ibili ziren fundatzaileak

eta Arizmendiarieta Madrilera aurrera eta atzera, agintariekin ordura arteko “Ulgor” soilik zena-ri “Ulgor, Sociedad Cooperativa” izen legala eman arte.

Esanguratsua da 1966an Fernando Elena kooperatibismoan adituak (Toledo, 1933) idatzi zuena: «Todavía para muchos (...) el grupo cooperativo de Mondragón constituye una auténtica desviación del movimiento cooperativo ortodoxo. (...) Por ello me he permitido dedicar un capítulo entero... Para que después podamos juzgar con conocimiento de causa si es o no cooperativismo aquello. Quizá, incluso, para que cada uno podamos llegar a la conclusión de que, si no es cooperativismo, es

mejor y más eficaz que el cooperativismo lo que están haciendo».

Esperimentua izanik, apustu pertsonala ere bazen sortzaileentzat. Beraien lanpostua alde batera utzi, ardura handiko karguak (Unión Cerrajeran, besteak beste), eta bide ezezagun bati ekin zioten: inork aurretik erabili gabeko enpresa formula bat. Hegazkina asmatu zuten Wright anaien esaldia ekar daiteke hona: “Isn’t it astonishing that all these secrets have been preserved for so many years just so we could discover them!”. Parafraseatuz, sortzaileek esan lezakete “Ez al da harrigarria sekretu hori horrenbeste urtez gordeta egon dela guk deskubritu dugun arte!”. Ekonomikoki eta sozialki eraginkorra den enpresa eredua deskubritu zuten.

Proiektura batu ziren pertsonak ez zekiten zer zen kooperatiba bat. Ez zekiten ere zer zen espiritu kooperatiboa. Eta funtzionatu zuen.

Eta funtzionatzen du. —

“Esperimentua izanik, apustu pertsonala ere bazen sortzaileentzat kooperatiben bidea: inork aurretik erabili gabeko enpresa formula bat abian jartzea”

Javier Benito ,
BATZeko azpiegituren eta
zibersegurtasunaren koordinatzailea

LUBAKI DIGITALA

Javier Benito Rodríguez 44 urteko bilbotarrak ateak ireki dizkigu bere egunerokoan murgiltzeko. Gudu-zelai digital honetan, prebentzioa eta azkartasuna ezinbestekoak dira automobilgintzaren sektore lehiakorrean bizirauteko.

TESTUA **USOA AGIRRE** | ARGAZKIA **OIER MARKOTEGI**



Industriaren muinean, makineria astuna eta kate-ekoizpena izan direnean betiko protagonistak, defentsarako lehen lerro berri bat sortu da: zibersegurtasuna. Javier Benito Rodríguez BATZ kooperatibako azpiegituren eta zibersegurtasunaren koordinatzailearekin hitz egin dugu. 18 urteko eskarmentua du enpresan, eta industria-erraldoi bat aro digitalean babestek dakartzan erronken eta pozen berri eman digu.

Benitoren lanketa eguneroko berrikuspen estrategiko batekin hasten da. Lehenik eta behin, zibersegurtasuneko plan zuzendariaren baitan kokatzen diren proiektuen egoera aztertzen du; plan horrek 2027ra arteko ibilbide-orri zehatz bat du ezarrita, eta kooperatibaren defentsaren bizkarrezurra da. Ondoren, gertakarien atzematean jartzen du arreta. Kanpoko SOC (Segurtasun Operazioen Zentroa) batekin elkarlanean, aginte-panelak aztertzen ditu, abian legokeen eraso baten zantzu izan daitekeen edozein anomaliaren bila. Bere lantaldearen kudeaketa eta koordinazioarekin osatzen ditu goizeko lehen orduak.

Industria-sektoreak erronka bereziak ditu. Bulego-ingurunean ez bezala, industrian “disponibilitateak du lehentasuna, beste guztiaren gainetik”. Horrek esan nahi du sistemak askotan zaharrak izaten direla, 8 funtzionatzen duen bitartean, ez ukitu” lelopean. Benetako arriskua sortzen da teknologia zaharkitu hori IT sare modernoekin konektatzean, kanpora irekitzeko. Gero eta beharrezkoa den konexio horrek ahultasunei atea zabaltzen die, eta subakiak (firewall) eta mantentze-lanetako langileentzako sarbide-kontrol zorrotzagoak bezalako neurriekin egin behar zaie aurre.

Ransomware delakoa, jaun eta jabe

Mehatxu ohikoenei buruz galdetuta, erantzuna argia da: “izar nagusia ransomwarea da”. Hala ere, eraso mota horrek bilakaera izan du. Orain, datuak zifratzeaz gain, horiek filtratzearekin ere egiten dute mehatxu. Enpresek be-

Etorkizuna: erregulazioa, adimen artifiziala eta hornikuntza-katea

Automobilgintzako zibersegurtasunaren etorkizuna erregulazioak markatuko du. Europak dagoeneko jarri ditu mahai gainean UNECE/R155 bezalako araudiak. Horiek ibilgailuen fabrikatzaileei eta haien hornikuntza-kate osoari segurtasun-baldintza zorrotzak betetzea exijitzen diete konektatutako autoetarako. Hori da, Benitoren arabera, “industriaren erronka garrantzitsua”.

Erronka horiei aurre egiteko, BATZ ez da soilik bere segurtasunean zentratzen; hornitzaileei ere bezeroek ezartzen dizkieten estandar berberak eskatzen hasi da. Kanpo-zaintzako tresnak erabiltzen dituzte, dark webean informazio-ihesen bila (kredentzialak edo dokumentuak, esaterako), “eraso bat gertatu baino lehen prebenitu ahal izateko”.

rreskuratze-planak izan ditzakete sistemak erreskaterik ordaindu gabe leheneratzeko, baina informazio pribilegiatua filtratzeak estortsio-geruza berri bat gehitzen du, zigorak jasotzeko eta ospeari kalte larria egiteko arriskuarekin.

BATZ kooperatibak ongi daki zer den hori. Iraganean zibereraso garrantzitsu bat jasan zuen. Une kritikoa izan zen, eta berreskuratze ahalegin handia eskatu zuen, baina esperientziak aldaketarako pizgarri gisa balio izan zuen: “Ikasi dugu, jardunbide oso onak atera ditugu eta asko hobetu dugu arlo horretan”. Ondorio positiboetako bat kooperatibako langileen kontzientziazioaren hazkunde nabarmena izan zen. Orain, aktiboki ematen dute mezu elektronikoko susmagarrien berri, eta segurtasunarekiko konpromiso handiagoa erakusten dute.

Jakin-mina eta etengabeko ikaskuntza

Etengabe aldatzen ari den ingurune honetan, jakin-mina eta etengabeko ikaskuntza funtsezkoak dira. “Mundu hau beti ari da aurrera egiten, eta gustuko dut beti hor egotea, gauza berriak ikasten”, dio. Izan ere, dagoeneko aztertzen ari dira adimen artifiziala nola aplikatu zibersegurtasunean.

Presioari iskin egin beharrean, poztasun handia aurkitzen du bere karguaren erantzukizunean eta horrek dakarren lidergoan. Industria-zibersegurtasunean bere bidea jarraitu nahi dutenentzat, aholkua argia da: oinarri tekniko sendoaz gain, ezinbestekoa da talde-lana bezalako trebetasunak garatzea eta, batez ere, “ekoizpeneko jendearekin harreman ona izatea”. Azken finean, industriaren babesa ahalegin kolektiboa da, teknologiaren eta hura darabilten pertsonen arteko aliantza. —



MONDRAGON Health

MONDRAGON Health aliantza estrategikoan MONDRAGON Korporazioaren bederatzi kooperatiba ezberdinen soluzioak eta zerbitzuak batzen dira. Osasun-sektoreran bideratutako zerbitzuak eskaintzen ditu aipatu klusterrak, arlo soziosanitarioan eta bioteknologikoan. MONDRAGON Health sare kooperatibo bat ere bada, teknologia eta ezagutza konbinatzen dituen, eta irtenbide integral eta berritzaileak eskaintzen dituen. Horrez gain, garapen ekonomiko eta soziala ere sustatzen ditu bere ingurunean.

GORKA ETXABE

MONDRAGON Health indarrak batzeko, ezagutzak partekatzeko eta gizartean eragin positiboa biderkatzeko asmoz sortu zen. Lankidetzeta-plataforma eraginkorra sustatzeko ideiarekin sortu zen, kooperatiba bakoitzak bere espezializazioa eskaintzeko eta, elkarrekin, proposamen sendoago eta berritzaileago bat egiteko. Hala, MONDRAGON Health-en helburua da osasunaren eta zainketa soziosanitarioen esparruetan dauden gero eta premia handiagoei modu lehiakorrean erantzutea.

Klusterra datuetan

9 kooperatiba

1.702 pertsona

+ 165 M€ guztien arteko fakturazioa

- **Bexen Cardio**
Espezialistak desfibriladoreetan.
- **Bexen Medical**
Ospitaleetako material sanitarioaren fabrikatzaile eta tenperatura ultrabaxuak behar dituzten lagin biologiko eta sendagaien kontserbazioa.
- **Bihar Homecare**
Adineko pertsonentzat eta mendekotasuna duenarentzat zerbitzu eta produktu eskaintza.
- **Erreka**
Mediku dispositiboaren fabrikatzailea polimeroetan eta pertsonen mugikortasuna samurtzeko soluzio aurreratuak.
- **Fagor Healthcare**
Pertsonen osasun eta ongizaterako soluzioak.
- **Gerodan**
Ekipamendu soziosanitarioen sorkuntzan adituak.
- **GSR**
Ekipamendu soziosanitarioen sorkuntzan adituak.
- **LKS Next**
Bazkide teknologikoa sektorearentzat soluzioen garapenean, hainbat proiektuekin, hala nola partekatutako datuetan, analisisian eta sistema digitaletan.
- **Osarten**
Langileen lan segurtasuna eta osasuna.

BESTE DATU BATZUK

3 patente aplikatuak

+ 23.000 babes mankomunatuak duten pertsonak

+500 zertifikatutako erreferentziak

+25.000 kontrol analitikoak urtero

+ 25.000 eragile kimikoen mostra analizatuak

1.550 areto txurien metro koadroak





Manuel Sánchez-Lagarejo

MONDRAGON HEALTHKO PRESIDENTEA

“Gure klusterrean kooperatiba bakoitzak bere espezializazioa eskaintzen du eta elkarrekin proposamen sendoagoa eta berritzaileagoa eskaintzen dugu”

Zein eremutan garatzen du bere jardura MONDRAGON Health-ek eta zein proiektu nabarmenduko zenituzke?

Gure kooperatiben jardura askotarikoa da, ospitaleko materiala fabrikatzetik soluzio teknologiko aurreratuenetara. Baita zerbitzu asistentzial eta soziosanitarioak ere. Besteak beste, honako proiektu hauek nabarmenduko nituzke. Bexen Medicalen bioerreaktoreak eta bir-diseinu aurreratua. Bexen Cardiores REANUDIBEX 300 eta 500 ekipoak. Erreka Medicaiek mikrofluidikoan oinarritutako gailu mediko berritzaileak garatzen ditu. Bestalde, Fagor Healthcarek CircuTrack merkaturatu du, sendagaiak etxean banatzeko sistema adimenduna, eta Gerodanek aliantza estrategikoa ezarri du Guldmann daniar enpresarekin, ingurune soziosanitarioetan konponbide seguruak eskaintzeko. Era berean, GSRk zaintza- eta laguntza-ekosistemak bultzatzen ditu, arreta-eredu pertsonalizatuen bidez komunitate-integrazioa bultzatzen dutenak; Bihar Healthcare-ek tresna digital berritzaileekin egindako zainketa zerbitzuak denbora errealean egokitze aukera ematen du, eta Osartenek laneko arriskuen prebentzioan zerbitzu aurreratua eskaintzen du. Era berean, Es-

tutuko unibertsitate eta zentro teknologikoekin lankidetzan sustatzen ari gara.

Zein da etorkizuneko estrategia eta zeintzuk proiektuak?

Gure etorkizuneko estrategia MONDRAGON Health osasun-sektoreko erreferente gisa sendotzea da. Estatuan zein nazioartean. Aliantzak bultzatuko ditugu eta Korporazioko enpresen arteko lankidetzan indartuko dugu. Datu-espazio partekatutako eta irtenbideak bultzatuko ditugu. Zerbitzu digital aurreratutako eta produktu mediko berritzaileak ere eskainiko ditugu. Irtenbide iraunkorrak ematea da gure konpromisoa, zerbitzu berritzaileak, gure presentzia globala sendotuz. Beti ere, ikuspegi estrategikoarekin, argi eta garbi gizarte ongizatea eta gure inguruaren garapena sustatuz. —

“Gure kooperatiben jardura askotarikoa da, ospitaleko materiala fabrikatzetik soluzio teknologiko aurreratuenetara. Baita zerbitzu asistentzial eta soziosanitarioak ere”



LANTOKIAN JAI-GIROAN

12 metroko panelen gunea txiki-txoko, biltegia zine-areto, enbalaje gunea taberna eta logistikakoa dantzaleku. 400 lagunetik gora batu ziren KID Eren 50. urteurreneko egun nagusian, familia-egunean. Goizean goizetik eta arratsaldera arte jai giroa nagusitu zen kooperatibaren urteurreneko egun handiaren.



Kongratu

Urriaren 4an, goizez, ez zen produkzio-rik izan KIDEn. Ez behintzat hotz-pa-nelen produkzio-rik. Beste gauza asko ekoiztu ziren, hori bai. Bereziki, emo-zioak. Familiek bertatik bertara enpresaren txo-ko ezberdinak zeharkatzeko aukera izan zuten, etxeko en lantokian etxeko saloian bezalaxe ari-zeko aukera ondo aprobetxatu zuten. 50 urte ez

dira urtero betetzen eta horrelako egunak ez dira arruntenak, eta erruz disfrutatu zuten KIDEra gerturatu zirenek. Askoren esanetan, KIDEn da-ramatzaten urte luzeetatik, egunik onena. Beste 50 urte bete baino lehen, errepikatu dezatela KI-DEn antzeko ospakizun eguna. Izango da aitzakia, noski baietz, familia argazki handia ateratzeko. Zorionak KIDE! —



MONDRAGONEK INTERESA PIZTEN DU

Azken asteotan, MONDRAGONEk erakunde desberdinetakoa pertsona ospetsuen bisita jaso du, besteak beste, Salvador Illa Generalitat-eko presidentearena, Francina Armengol Kongresuko presidentearena eta Carlos Cuerpo Ekonomia ministroarena.

Bisita horiek Esperientzia Kooperatiboak erreferentziazko eredu sozioekonomiko gisa pizten duen interesaren erakusgarri dira. "Funtzionatzen duen modelo bat", Armengolek bere bisitan esan zuen bezala. "MONDRAGONEk erakusten du gizarte oparo baterako oinarririk onenak hezkuntza, berrikuntza eta prestakuntza direla, enplegua, aberastasuna eta bidezko banaketa sortzen dituztelako".

Halako bisitek gertutik erakusten dute ekosistema kooperatiboaren indarra: kalitatezko enplegua sortzeko, sektore estrategikoetan berrikuntza lantzeko eta trantsizio berde eta digitalaren erronkei lankidetzat logika batetik aurre egiteko gaitasuna.

Bisitari hauen ospea kontutan hartuta, bisita hauek sendotu egiten dute MONDRAGONen irudia esperientzia berezi eta aitzindari gisa, lehiakortasuna eta elkartasuna uztartzeko gai dena. Bisitek sortzen duten arreta mediatikoak eta agintarien aitortza mezuek gure kooperatiben proiektzio publikoa indartzen dute, eta, berriro ere, eredu kooperatiboa bideragarria izateaz gain, inspiratzailea ere badela balioesten dute enpresa egiteko formula gizatiarragoak eta iraunkorragoak bilatzen dituztenentzat.

MONDRAGONen erakarpena

Azken bisita instituzional hauek — eta urtean zehar jasotzen ditugun beste askok, 3.000 inguru 2024an — Esperientzia Kooperatiboarekiko interesa berresten dute. Era batera edo bestera, horietako asko bat datoz gure indarguneetako batzuk nabarmentzean: gobernantza demokratikoaren konbinazioa, askotariko negozioen kudeaketa lehiakorra eta gizartean sortzen duen eragina.

1. Irailaren 18an hartu zuen Leire Mugerzak **Francina Armengol** Otoran, Asfabriken (Mondragon Unibertsitatea) hasitako bisita instituzionalaren baitan. Bisita hori Fagor Arrasate eta Ikerlan bisitatuz amaitu zen.
2. **Carlos Cuerpo** joan den urriaren 1ean hartu zuten Elixabete Etxanobe diputatu nagusiak eta Marisol Garmendia Espainiako Gobernuak Euskadin duen ordezkariak Bilboko BATn (B Accelerator Tower). Udaltzatza, Eroskik eta Laboral Kutxak dorrean partekatzen duten gunea bisitatu zuen.
3. Irailaren 19an Pello Rodriguezek eta Mikel Torres Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak harrera egin zioten **Salvador Illari** Otoran. Ondoren, Mondragon Assemblyk Aretxabaletan duen lantegia bisitatu zuen.





Rafa Pol

Ekonomista eta PMP*



MONDRAGON, CHARLIE KIRK-EN ARABERA

Che Guevararen kamiseta jantzita daraman gaztea: "Entzun duzu MONDRAGON Korporazioaren berri, Espainian?"

Charlie Kirk: "Bai, haren berri izan dut. Ez dira oso eraginkorrak. Eta ez dute oso ondo funtzionatzen. Baina norbaitek horrelako korporazio mota bat AEBetan sortu nahi badu egin dezake, hori da merkatu librearen alde ona".



Bitxia bada ere, nire aurreko kolaborazioa, "¿Es MONDRAGON Antifrágil?" izenekoa, aurreko elkarrizketa jasotzen zuen YouTubeko bideo bat ikustearen ondorioz idatzi nauen. Bideo horrek aurretik inoiz entzun ez nuen Charlie Kirk-ek mahainguru batean esandakoak jasotzen zituen, eta WhatsApp bidez jaso nuenean nolabaiteko ezinegona eragin zidan.

Nire artikulua bidez, bere iritzia indargabetu nahi izan nuen, Taleb-en hauskortasunaren aurkako kontzeptuan oinarrituz, besteak beste, deszentralizatutako erakunde batek bizirauteko probabilitate handiagoa proposatzeko aukera ematen baitzidan, nahiz eta eraginkortasun txikiagoko potentzial baten kontura izan.

Kirk-en izena ahaztua nuen dagoeneko, eta ez neukan AEBetako unibertsitate komunitatean zuen garrantziaren berri. Orain, haren hilketaren ondoren, grabazio** hura berrikusi nahi izan dut, beste elementu interesgarri batzuen bila... eta aurkitu egin ditut.

Ez naiz ari MONDRAGONi buruzko aipamen gehiagoz, ez baitaude esandakoaz haratago, baizik eta langileek produkzio bitartekoak jabetzan duten parte-hartzearen adibideetaz. Zehazki, Floridako Publix supermerkatu katea aipatu zuen, eta baita AEBetan existitzen den ESOP (Employee Stock Ownership Plan) izeneko figura ere, langileen eta akziodunen interesak lerrotatzeko helburuarekin enplegatuentzat akzioen jabetza plana dena eta milioi bat pertsonak baino gehiagok baliatzen dutena.

Hori ez dator bat "pertsona bazkide bat-boto bat" proposamenarekin, ez du lortzen enpresako kapital sozialaren gehiengoaren kontroletik ihes egitea, ez da lan ekarpenaren nagusitasunean oinarritzen, eta ez du ordainsarien elkartasuna aintzat hartzen.

Kooperatiba gurutzada

Hala ere, filosofia kooperatiboa gure mugetatik kanpo ebanjelizatzen

tzeko ahaleginean asmatu ez dugula pentsatzera bultzatzen nau. Gutxienez toki bakoitzeko idiosinkrasia eta legeen zirrikituak aprobetxatuta, gure esperientzia herrialde horietara hurbiltzeko eta haien lan eta gizarte dinamikan eragitea lortu ez dugula.

Bestalde, badakit zein errealtateri egin behar diogun aurre aritzen garen leku askotan, eguneroko biziraupenak pertsonak ia mertzenarioak diren jokabideetara bultzatzen baititu, oinarri kooperatiboekin bat ez datozenak.

Baina, agian, oraindik ez da berandu izango gurutzada honetarako, gu bidean ikasten ari garela eta eskaintzeko gero eta gehiago dugulako, munduak krisi ziklikoak bizi dituelako, eta une horietan eredu dibergenteei begiratzen zaielako, gurea kasu, disfuntzioak konpontzen saiatzeko.

Dena dela, beti dago zer ikasi desafia egiten diguten eztabailetatik, gure burua hobe definitzen erakusten digutelako. Mila esker Charlie Kirk, nirekin eztabaidatzeagatik oraindik nor zinen ere ez nekienean. Hartu atseden bakean. —

“Batuetan uste dut ez dugula asmatu filosofia kooperatiboa gure mugetatik kanpo ebanjelizatzen”

*Proiektuen kudeaketako profesionala, Project Management Professional ingelesezko sigletan.

Malen Sarasua

LEARTIKER-EKO ESNEKI ZENTROKO ARDURADUNA ETA IKERTZAILEA

“Behi esne sektoreak hurrengo hamarkadan bilakaera polita izan dezake”

Elikagaien Zientzia eta Teknologian lizentziatua, bere ibilbide profesionala Leartiker zentro teknologikoan egin du. Urteetako lanaren ondorioz elikagai-esnekien ezagutza eta garapenean aditua eta sektorearentzat erreferente da gaur egun. **JAVIER MARCOS**



E snekietan, ikerketak nondik nora doaz?

Lehenik eta behin esan beharra dago guk esne eta esneki sektore artisauekin egiten dugula lan eta kontestu honetan erronkak ezberdinak direla. Erkidego mailan dibertsifikazioaren aldeko apustu garbia dago. Horretaz gain, ezin ahaztu jasangarritasuna, digitalizazioa eta teknologia berrien barneratzearekin erlazionaturiko ikerketa lerroak.

Produktu iraultzailerik aurreikusten da?

Euskal Autonomi Erkidegoan behi esne sektoreak hurrengo hamarkadan bilakaera polita izan dezake ustategian bertan esnea eraldatzen hasiak direlako. Ezaugarri organoleptiko bereizgarriak eta formatu ezberdineko behi gazta interesgarriak aurkituko ditugu merkatuan epe ertainera.

Gazta asmatuta egonda, berrikuntza nondik etorri liteke?

Gazta asmatuta egon arren, eta mundu mailan 2000 gazta ezberdin egonda ere, gazta on eta bereizgarri bat ekoizteak bere konplexutasuna du eta artisautza-sektorean norberak aurkitu behar du bere bidea (hartzigarri propioak erabiliz, afinazio prozesua pertsonalizatuz, bere mikrobioma ezagutuz, etab.).

Postrerako, gazta ala flana?

Gazta dudarik gabe. Gazta bategatik 5.000€ ordainduko zenuke? Ez, gazta zoragarriak daude hori ordaintzeko premiarik gabe.

Euskal gaztak, zerk bereizten dituzte?

Ekoizle gehienak eraldatzaileak izateaz gain esne ekoizleak ere badirela. Hau da, animaliak dituzte eta etxeko esnari balio erantsia ematen diete gazta mota ezberdinetan eraldatuz.

Gosarirako, baso bat esne, kafesnea ala infusioa?

Kafesnea.

Esnea, semi ala osoa? Zergatik?

Osoa dudarik gabe. Esneak zenbat eta tratamendu edota eraldaketa gutxiago jasan, orduan eta digestigarriagoa delako, eta bere osotasunean nutrizio balio handiko elikagaia delako.

Gustuko dituzun bi esneki?

Gazta urdina eta gurina.

Musika lasaia edo mugitua?

Mugitua, gorputza mugitzera eramaten nauena.

Irakurri duzun azken liburua?

Joel Dickers-en *Un animal salvaje*.

Serieak ala pelikulak? Gomendiorik?

Serieak. Azken aldiari friki xamar nabil *K-Dramak* ikusten.

Azken bidaia?

Txilera gaztangintzari esker eta Siziliara lagunekin.

Kooperatiba bat?

Leartiker dudarik gabe, nire ibilbide profesional osoa bertan egin dut eta lanari esker gaztagintza jada nire afizioa ere bada. —

“Amets bat? Euskal esne eta gaztagintza sektorea lehiakorra izatea, belaunaldi gazteak erakartzea eta bertako kulturen eta ekoizpen ereduetan oinarrituriko elikadura osasungarri eta jasangarria bermatzea”

Laneko arriskuen prebentzioa (LAP) eraldaketa garaian dago, digitalizazioak, belaunaldi aldaketek, araudiaren bilakaerak eta osasuna eta ongizatea erakundeen gune estrategikoan integratzeko beharrak bultzatuta.

ZIGOR ARTAMENDI
OSARTENKO ZUZENDARI NAGUSIA

Prebentzioaren erronkak





“**Panorama konplexua baina aukeraz betea marrazten da**”, OSARTENen hausnarketa estrategikoan parte hartzea onartu duten enpresa garrantzitsuetako adituen arabera:

- Digitalizazioa ardatz eraldatzaile gisa.
- Antolamendu-ereduak: berezko zerbitzua vs. azpikontratazioa.
- Giza ikuspegia eta belaunaldien egokitzea.
- Adimen artifiziala eta prebentzioa: aukerak eta mugak.

Digitalizazioa ardatz eraldatzaile gisa

Laneko arriskuen prebentziorako prozesuen digitalizazioa da bektore nabarmenetako bat. Laneko segurtasun eta osasun-sistemak informatizatzea funtsezkoa da profesionalen eta segurtasun eta osasun alderdiak lantzen dituzten rolak betetzen dituzten pertsona guztien karga burokratikoa murrizteko eta haien jardunaren eraginkortasuna hobetzeko.

Gamifikazioan oinarritutako tresnak ezartzeak (bideojokoen berezko elementuen erabilera), erronkak konpontzeko aukera ematen dute, identifikazioan pertsona guztien parte hartzea areagotuz eta ikaskuntza hobetzen da, ohitura seguruak integratuz.

Era berean, adimen artifizialak backoffice-ko zereginetan duen zeregina nabarmentzen da, hala nola dokumentuen kudeaketan, datuen analisisian eta txostenen idazketan. IA txatbots bidezko arretan eta ikusmen artifiziala duten irudien analisisian ere aplikatzen da arrisku egoerak identifikatzeko, nahiz eta ohartarazten den oraindik mugak daudela arriskuen iragarpena erabat automatizatzeke.



Antolaketa-ereduak: berezko zerbitzua vs. azpikontratazioa

Enpresek prebentzio zerbitzuen eredu propioa mantentzea-
ren abantailak nabarmentzen dituzte, osasun arloko profesio-
nalek eta teknikariek osatutako diziplina anitzeko barne ba-
liabideekin. Ikuspegi horrek aukera ematen du langileekin
harreman zuzena izateko eta hobeto integratzeko, eta, bes-
teak beste, saihestu egiten du kanpoko zerbitzuen azpikontra-
tazioarekin gerta daitekeen informazio galera.

Hala ere, erronkak ere identifikatzen dira: hala nola, zen-
troen edo filialen arteko praktiken armonizazioa eta langile
espezializatuen eskasia, erretiroek eta belaunaldi erreleborik
ezak areagotua. Muga horiek direla-eta, estrategia berriak be-
har dira profesionalak erakartzeko, etengabeko prestakuntza-
rako, eta segurtasunarekin eta lan osasunarekin lotutako lan-
bide teknikoei eta sanitarioei gizarte-ospe handiagoa emateko.

Giza ikuspegia eta belaunaldi egokitzapena

Pertsonengan oinarritutako ikuspegi bat proposatzen da, non
prebentzio eraginkorrerako aurrea hartzea eta egokitzea fun-
tsezkoak diren. Nabarmendu dute gaur egungo legeria, argia
bada ere, zaharkitua dagoela eta enpresa bakoitzaren erreali-
tatera eta bertan lan egiten duten pertsonen profiletara ego-
kitu behar dela.

Itxaropenari dagokionez belaunaldien arteko desadosta-
suna agerian dago: aurreko belaunaldiek egonkortasuna ba-
loratzen zuten bitartean, gazteenek kontziliazioa, ongizatea
eta malgutasuna lehenesten dituzte. Hori dela eta, erakun-
deek osasuna eta ongizatea sustatzeko planak diseinatu behar
dituzte eskaera berri horiei erantzuteko, eta osasun mentala,
ergonomia eta psikosoziologia elementu nagusi gisa integra-
tu behar dituzte.

Adimen artifiziala eta prebentzioa: aukerak eta mugak

IA datu bolumen handiak kudeatzeko zein agente kimikoeki-
ko esposizioaren ebaluazioak edo datu klinikoak egiteko tres-
na ahaltsu gisa aurkezten da. Hala ere, IAri buruzko itxarope-
nek errealtistak izan behar dutela ohartarazi da: arau aldaketak
laburbiltzen edo lege dokumentuak alderatzen lagundu deza-
keen arren, oraindik ezin du giza iritzia ordezkatu erabaki es-
trategikoak hartzerakoan eta iragarpenetan.

Gakoa teknologia erakunde bakoitzaren testuinguru eta
heldutasun digitalera egokitzea da, konponbide generikoak
saihestuz eta erakundearen eta segurtasun eta osasun arloko
profesionalen benetako beharrei erantzungo dieten garapen
pertsonalizatuen alde eginez.





Erronka estrategikoak eta etorkizuneko agertokiak

Lan arriskuen prebentzioan artearen egoerak eredu digitalagoetara, gizatiarragoetara eta egokitzaileagoetara egindako trantsizioa islatzen du. Digitalizazioa, adimen artifiziala, belaunaldien arteko desberdintasunekiko arreta eta barne zerbitzuen aldeko apustua sektorea birdefinitzen dabiltzan joerak dira.

Hala ere, erronka garrantzitsuak daude oraindik ere: langile espezializatuen eskasia, arauen zurruntasuna eta segurtasunaren, osasunaren eta ongizatearen pertzepzio kulturala hobetzeko beharra, hain zuzen ere. Horretarako, pertsonen erantzukidetasun handiagoa hartzen dute beren gain, jardunari eta alda ditzaketen baldintzei dagokienez, osasunean modu negatiboan eragin dezaketen eta horren arabera joka dezaketen ohi-tura guztien pertzepzioa barne hartuta.

Erronka horiek gaintitzeak ikuspegi estrategikoa, eragilearen arteko lankidetzaren eta berrikuntzaren aldeko apustu irmoa eskatuko ditu.

Prebentzioa egiteko beste modu bat

Lagun Aro BGA Eren dibisioen eta komunitateen arteko sinergiak aprobetxatuz, eta tamaina handiagoko industria kooperatibek enpresako mediku zerbitzuak eratu eta prebentzio teknikariak zituztenez, enpresa taldeari eta ingurune geografikoari lotutako prebentzio zerbitzu mankomunatuak eratu zen.

Estatuko enpresen artean arrakasta handirik izan ez duen antolaketa modalitate hori rara avis bat da, baina, hala ere, zerbitzuan parte hartzen duten enpresa guztien artean jokabide erantzukidea izatea ahalbidetu du. Era berean, apustu argia izan da gaiari buruzko ezagutzak zituzten plantilletako pertsonak eta prebentzioaren arloan enpresaren ezagutza aberastuko zuten profesionalak kontratatzea.

Gaur egun, OSARTENen bidez artikulatutako prebentzio zerbitzu mankomunatuak prebentzioko 100 espezialista baino gehiago eta enpresaren espezialitatean trebatutako osasun arloko 30 profesional baino gehiago batzen ditu. Azken horiek OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) baimendutako 30 instalazio baino gehiagotan garatzen dituzte osasun zerbitzuak.

Prebentzioaren etorkizuna

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen erreforma aztertzeaz arduratzen den lan mahaiak legegintzako testuaren aldaketa batzuk planteatzen ditu.

- Genero integrazioa, adina eta aniztasuna prebentzio kudeaketan.
- 3 diziplina tekniko izatetik 4 izatera igaro da: laneko segurtasuna, industria higieena, ergonomia eta psikosoziologia.
- Osasun diziplinak balioa ematen dio osasun kolektiboaren zaintzaren zereginari; aurreko testuak, batez ere, medikuen osasun azterketei buruz hitz egiten zuen.
- Absentzia luzeen ondoren lanera itzultzeko protokoloa, osasun kalteak eragin edo larriagotu zitzaizketen lan baldintzak eta lanpostuan egin beharreko egokitzeak kontuan hartuta.
- 500etik 300era, enpresa batek prebentzio zerbitzu propioa osatu behar duen langileen kopurua.
- Plantillan 30 pertsona baino gehiago dituzten enpresa guztiek prebentzioko 2 ordezkari izan beharko litzukete, eta segurtasun eta osasun batzorde bat eratu.
- Prebentzio ordezkariarentzat oinarritzko prestakuntza eta prebentzio eginkizunetarako izendatutako pertsonak ezin dira 50 ordutik beherakoak izan (lehen 30 ordu baimentzen ziren).
- 18 urtetik beherako pertsonen babesa: jarduera arriskutsuak eta debekatuak eguneratu dira. —

OSARTEN

Segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa

OSARTEN, 50 pertsonakosatzen duten kooperatiba, Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua kudeatzeaz eta lan eta osasun administrazioarekiko harremanez arduratzen da, prebentzioko jardueren alorrean.

TULANKIDE

Prebentzioko profesional taldearen prestakuntza eta ikaskuntza sustatzeko helburuarekin, jarduera eta tailer programa oso bat jartzen du taldearen eskura, araudiari, ezagutzari, sortzen ari diren arriskuei eta abarri buruzko gaiekin, prebentzio gaietan eguneratuta egoteko.

Gainera, aholkularitza juridikoa ematen du prebentzioaren eremu espezializatuan, kooperatibei eragin diezaizketen araudiak, epaiak edo zuzentzarauak interpretatzean sor daitezkeen gai guztiak ebazteko. Alderdi garrantzitsua da zerbitzuaosatzen duten erakundeentzen espezifikotasunari dagokionez, gehienak lan-bazkideen kolektiboak eta kontratatutako pertsona batzuek

osatutako kooperatiba sozietateak baitira, langileen estatutua aplikatzen zaiena.

OSARTEN kooperatiba 100 enpresa bazkidek eta 40 bazkide langilekosatzen dute. Bere gobernantza Kontseilu Errektore baten bitartez gauzatzen da. Kontseilu horren presidentzia MONDRAGONeko Tere Marcosek du gaur egun, eta 12 pertsonakosatzen dute, enpresa bazkideak biltzen diren Talde edo dibisio bakoitzaren ordezkari gisa. Horrez gain, OSARTENeko hiru bazkide langilekosatzen dute Kontseilua.

Zuzendaritza nagusi batek koordinatzen ditu lau negozio arloak, eta zuzendaritza nagusi horrek Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuko osasun eta arlo teknikoetako adituekosatutako batzorde tekniko baten aholkularitza espezializatua du.





Jarduera eremuak

Aholkularitza eta prestakuntza Erakundeei laguntzen zaie beren antolakuntza-kultura garatzen eta sendotzen, segurtasuna, osasuna eta ongizatea ardatz hartuta. Horiek gobernantzan, prozesuetan eta enpresaren maila guztietako funtzioetan integratzen dira. Enprekin taldean egiten da lan, beren kultura eboluzionatzea eragozten duten oztopoak edo egoerak identifikatzeko, eta pertsonalizatutako irtenbideak sortzen laguntzen da, emaitza esanguratsu eta iraunkorrak lortzeko.

Antolakuntzako pertsonen prestakuntza eskaintzen zaie laneko segurtasun eta osasun arlo guztietan. Zuzendaritzako eta agente-kateko pertsonak gaitzen dira beren lidergoa eta eragina garatzeko, testuinguru seguruak sortzeko trebetasunak bereganatuz; horrela, pertsonak beren burua eta gaitzazkoak zaintzeaz arduratzen dira.

Laborategia OSARTENeko erizainak enpresa guztietara joaten dira, analisi kliniko eta toxikologikoetarako laginak hartzeko; urtero 25.000 pertsona baino gehiagoren determinazioak egiten dituzte. Goizean jasotako lagin guztiak eguerdian prozesatzen dira, eta emaitzak balidatu egiten dira arratsalderako pertsona bakoitzak bere emaitzak izan ditzan. Kilometro zero laborategia da, non laginek ez dituzten kilometro asko egiten eta dagokion nazioarteko araudian ezarritako aurre-analisiko baldintzak betetzen diren.

Higiene Industrialeko teknikariek egindako higiene industrialeko determinazioetako laginak ere aztertzen dira, batez ere, agente kimikoetan. OSARTENeko laborategia Espainia iparraldeko bakarra da, instalazio berberetan, Analisi Klinikoen, Lan Toxikologiaren eta Higiene Industrialaren zerbitzuak dituen, langilearen osasun-egoeraren ikuspegi global berezia eskainiz; horrek funtsezko informazioa ematen du osasunaren zaintza egokia egiteko.

Zuzendaritza nagusi batek koordinatzen ditu lau negozio arloak, eta zuzendaritza nagusi horrek Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak osasun eta arlo teknikoetako adituek osatutako batzorde tekniko baten aholkularitza espezializatua du.

OSARTENeko erizainak enpresa guztietara joaten dira, analisi kliniko eta toxikologikoetarako laginak hartzeko; urtero 25.000 pertsona baino gehiagoren determinazioak egiten dituzte.

Medikuntza LagunAro EPSVko mutualisten sarre-rako azterketa medikoez gain, mediku profesionalen taldea Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuako enpre-tako mediku profesionalekin lankidetzan aritzen da, plantillen osasun kolektiboa zaintzeko. Banakakoaz ere arduratzen da, eta azterketa medikoak egiten ditu lanpostuaren arriskuaren eta azterlan epidemiologi-koen arabera, langileen artean lan-patologiaren bana-keta identifikatzea ahalbidetzen dutenak, prebentzio-neurri egokiak hartzeko.

Osasun eta ongizate zerbitzuak Sustatzaile batek gi-datuta, enpresekin lankidetzan aritzen da osasun eta ongizate diagnostikoan, baita ekintza-planetan ere, besteak beste, tailerrak garatuz elikadurarekin, atse-denarekin, jarduera fisikoarekin edota osasun menta-larekin lotutako ohitura osasungarriak sustatzeko eta

mediku zerbitzurik ez duten enpre-sei laguntza baliabideak errazteko.

Prebentzio Teknikoa Osagarri espezializatu bat da enpresa ba-koitzeko profesionalei laguntzeko, ezagutza bereziak edo konplexuta-sun handikoak eskatzen dituzten jardueretan: obretako segurtasun eta osasun koordinazioak, higiene industrialeko determinazioak eta ebaluazioak (agente fisikoak eta ki-mikoak), lanpostuen azterketa ergonomikoak edo per-sonen gaitasunen balorazio funtzionala, eta arrisku psikosozialen ebaluazioak eta prebentzio neurrien ezar-pena (ebaluazio-tresna propioarekin: PSIKOOP). —





Norabide onean oinez

Gaur egun pertsonen segurtasuna eta osasuna garrantzitsua dela esateak topikoa dirudi. Nahiko aurreratuta dauden erakunde guztiek hala diote, eta, zorionez, adierazpen estandar bat da. Beste arlo askotan bezala, kontua da gero zer egiten duzun, nola gauzatzen duzun eta zenbateraino konprometitzen zaren horrekin.

ZIGOR EZPELETA MONDRAGONEKO GIZARTE KUDEAKETAKO ZUZENDARIA

Konpromiso maila arauak behartzen zaituen baino haratago jokatzu erakusten da, legezko betebeharra gaindituz eta anbizio handiagoko helburuak jarritz. Eta horrek, pertsonen segurtasunaren eta osasunaren esparruan, kudeaketa-sistema espezifikoak ezartzea, prebentzio-kultura garatzea eta gero eta osasungarriagoa den enpresa baterantz jotzea esan nahi du. Ezbehar-tasa kudeatzetik pertsonen osasun integrala helmuga gisa ezartzera doan goranzko norabidean joatea.

Pertsonen segurtasunaren eta osasunaren kudeaketa

MONDRAGON osatzen dugun kooperatibak, Osarten agente nagusi dugula, pertsonen segurtasun eta osasunarekiko konpromisoaren adibide garbia gara. Industria-sektoreko istripu-tasak EAEko enpresetako en ia erdira iristen dira, eta prebentzio kudeaketa eta kulturari dagokionez egindako aurrerape-nak ere garrantzitsuak dira. Eta horrela egiten dugu, ulertzen dugulako pertso-nak zaintzea ez dela zerbait taktikoa edo

instrumentala, baizik eta gure enpresa egiteko modu kooperatiboari berezkoa zaiona. Gero eta hobeto egi-teko anbizioari eustea koherentzia eskakizun osasun-tsu baten adierazgarri da.

Baliabideak mankomunatzeko eta esperientzia partekatuetatik ikastea asmatze handia izan da, gaur egun gauden tokian kokatzeko aukera eman baitugu. Osarten, gure kooperatibak laguntzen dituen agente traktore gisa sortu eta garatzea, elkarlankidetzako esperientzia oso adimentsua eta etorkizunerako potentzial handikoa da. Elkarrekin ibili eta ahaleginak batzean, gure berrikuntza-gaitasuna biderkatu eta erakunde partikular bakoitza gainditzeko irtenbideak sortzen ditugu.

Enpresen xedeaz hainbeste hitz egiten den garaio-tan, ekimen gutxi dute proiektua partekatzen dugun pertsonen segurtasun eta osasunarekiko konpromisoak adina zentzu. Norabide horretan egingo dugu aurrera, egunero ahalik eta hurrengo pauso onena emateko. —

Elkarrekin ibili eta ahaleginak batzean, gure berrikuntza-gaitasuna biderkatu eta erakunde partikular bakoitza gainditzeko irtenbideak sortzen ditugu.

Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua



%65
gizonak



%35
emakumeak

95 enpresa

25.963
pertsona

44
bataz
besteko
adina

%74

industria inguruneetan
lan egiten du

Zarata, kargen manipulazioa, jarrera behartuak eta faktore psikosozialak dira gure osasun-profesionalek azterketa medikoetan sarrien aplikatu dituzten protokolo medikoak.

100+

prebentzio
teknikariak

30+

enpresako arloko
mediku eta erizain
espezializatuak

25.000

urteko azterketak



10.046

2024an Laneko Segurtasun eta Osasunean prestatutako langileak

8.148

langileei egindako inkestak, PSIKOOP ereduko arrisku psikosozialen ebaluazioetan

10.000+

Akribea proiekturako odol eta gernu emaileak, medikuntza prediktiboa hobetzeko



2025eko lehen sei hilekoan, baja eragin duten

30,07

istripu

1.000 langileko (EAEn 65,04 izan dira).



%6,99

Lagun Aro EPSVko mutualisten absentismo-tasa.

Datu horretatik, %6,383 gaixotasun arruntari eta lanekoa ez den istripuari egotz dakioke (%0,11ko igoera), eta %0,609, berriz, kontingentzia profesionalari (%0,01eko igoera).

- 1.700 pertsonari jarraipen toxikologikoa egiten zaie urtero, beren lanpostuetako lan-esposizioagatik.
- Laneko Segurtasun eta Osasunaren helburuak Prebentzio Zerbitzuak edo Segurtasun eta Osasun Batzordeak proposatzen ditu oraindik ere.
- Iraupen Jakineko Bazkideen eta Besteren Konturako Langileen ezbehar-tasa: langileen %64, bajadun lan-istripuen erdia.
- Ez da %32ra iristen Laneko Segurtasunean eta Osasunean prestakuntza eman duten enpresen ehunekoa.

Kasu praktikoak

MONDRAGONeko kooperatibetan

Langileen segurtasunak, osasunak eta ongizateak garrantzi handia hartu dute lan-esparruan eta, jakina, baita gure kooperatibetan ere. MONDRAGONen ez dago errezeta, metodo edo eta estrategia bakarra kooperatibetan pertsonen segurtasuna, osasuna eta ongizatea lantzeko. Kooperatiba batzuen kasuak aukeratu ditugu gaur egun garatzen ari diren jarduera eta estrategien erakusgarri bezala.

GORKA ETXABE

DANOBATGROUP: ARRISKU PSIKOSOZIALAK

Danobatgroup industria-taldeak jarduera asko garatzen ditu lan-osasunaren esparruan. Iker Usabiaga Danobatgroupeko Giza Baliabideen zuzendariak arrisku psikosozialen prebentzioaren arloan egiten ari diren lanaz hitz egin digu.

Danobatgroupen konpromiso sendoa dute osasun mentalarekin eta arrisku psikosozialen prebentzioarekin. Bi edo hiru urtean behin inkesta espezifikoak egiten dituzte balizko arriskuak identifikatzeko, eta, horietatik abiatuta, ekintza-plan zehatzak diseinatu eta abian jartzen dituzte. Era berean, Aldi Baterako Ezintasunaren adierazleen jarraipenean arreta berezia jartzen dute antsietate- eta depresioarekin lotutako kasuetan, baje kopurua eta horien batez besteko iraupena aztertuz. "Zorionez arlo honetan arazo berezirik ez dugun arren, prebentzioan lan egiten dugu", esan du Usabiagak. Horretarako, arduradunak prestatu dituzte, beren ekipoetan antsietate-egoerak detekta ditzaten eta behar bezala kudeatzen jakin dezaten. Era berean, bazkide guztiei saioak eskaintzen dizkiete, bertatik bertara, horrelako egoerei aurrea hartzeko eta aurre egiteko moduari buruz. Etengabe, gai horri buruzko online prestakuntzak ere jarri dituzte kolektiboaren eskura. "Azkenik, duela ia bi urtetik hona, bazkide guztiek eta haien senideek 24/7 arreta psikologikoko zerbitzu bat dute eskuragarri, eta horrek berehalako laguntza profesionala bermatzen du edozein unetan".

DANOBAT: SEGURTASUNA

“Helburu nagusia prebentzio arloa era naturalean erakunde guztian integratzea da”

Ekain Arrizabalaga, Danobateko COOak (Chief Operating Officer) azaldu digu Gobernantza korporatiboaren arloan egindakoak.

Danobaten testuingurua ulertu beharra dago proiektuaren dimentsioa bera ulertzeko. Danobat azkeneko 10 urteetan asko hazi eta garatu da (produktu aldetik, pertsona aldetik, profilak, instalazioak, aktibitate bolumena, internazionalizazioa, kolaborazioak...). Horrela izanik, garapen hori segurtasun arloan ere lortu beharra dute. Arrizabalagaren esanetan, helburu nagusia prebentzio arloa era naturalean erakunde guztian integratzea da. “Ardurak denonak direla argitu eta benetako kudeaketa aktibo bat egiteko beharrezko gobernantza zein izan behar den aztertu dugu. Hau da, zein estruktura, zein rolek, zein ardura, zein dinamika ditugun aztertu dugu”.

LABORAL KUTXA: ZAINDUZ

Zainduz, LABORAL Kutxako osasun eta ongizate programa integrala

Osasunarekin eta ongizatearekin zerikusia duten hiru arlo era integralean kudeatzen ditu LABORAL Kutxak. Nutrizioa, ariketa fisikoa eta ongizate emozionala dira Zainduz programaren oinarri. Gotzone Vergara eta Josune Agirrerekin hitz egin dugu programaren inguruan.

Hiru arlo horiek lantzen ditu, osotasunean eta era integralean LABORAL Kutxak Zainduz programaren bitartez. Urteak daramatza LABORAL Kutxak bere langileen osasuna zaintzen. Hala ere, Zainduz programa bezala 2019an sortu zen. Erakundeak, arlo ezberdinetan diharduten pertsonak osatutako batzorde eragile batek kudeatzen du Zainduz. Programak Zuzendaritzaren babes osoa du eta arduradun nagusia Nuria Agirre da. Berdintasun eta Ongizate Korporatiboko Planen arduradun eta Pertsona zein Baliabideen Arloko zuzendaria da Agirre. Gotzone Vergara eta Josune Agirrek esan digutenez, urtean zehar ekintza ezberdin ugari sustatzen dituzte, “batzuk presentzialak eta beste asko online. Bideo konferentziak, bestelako ikus-entzunezko pildorak, intranetean atal bat badugu eta bertan egoten da eskuragai eduki guztia”. Zainduz-en markapean askotariko gaiak lantzen dituzte. “Hiru arloak daude lotuta. Nutrizioa, ariketa fisikoa eta osasun mentala. Adibidez, loaren arloa, kirola, menopausia, ongizate emozionala, heriotza, gaixotasunak, gosari osasuntsuak... eta beste asko. Horietako batek kale egiten badu, programa hankamotz geratuko litzateke eta horregatik arlo guztietan dihardugu lanean”, eta harrera oso positiboa izaten ari dira.

Zainduz egitasmoaren baitan sortzen diren eduki guztiak LABORAL Kutxaren Intranetean daude. Horien guztien berri ematea, eta ekimenen erakargarritasuna promozionatzea da beste gako bat, programaren laugarren hanka komunikazioa dela esan daiteke. Eta saiatzen dira komunikazio akzio erakargarriak sustatzen. “Ekintzekin inzentibatzen saiatzen gara. Sariak jartzen ditugu; bizikleta elektriko bat esaterako. Gosari



Josune Agirre eta Gotzone Vergara, Batzorde Eragileko kideak

Zainduz, datuetan

- 2024an 1.457 pertsonak gutxienez Zainduz ekintza batean parte hartu zuten.
- Ekintza kopurua. Hilero 4-5 ekintza batezbeste.
- Berrikuntzak: aurten podcast formatua estreintu dute. Lehenengo Gaia: loa.



osasungarriak zozketatzen ditugu. Saiatzen gara marka ezagutzera ematen. Aholkularitza pertsonala ere eskaintzen baitugu arlo horietan guztietan: nutrizioan, osasun mentalean eta ariketa fisikoan”.

Intrama ziurtagiria

LABORAL Kutxa Intrama sarean dago, Estatuko beste enpresa eta marka handi askorekin batera. Bi urtez jarraian TOP Wellbeing Companies bereizgarria jaso du, langileen osasunarekin eta ongizatearekin konpromiso handiena duten erakundeak saritzen dituen bereizgarria. Gainera, 2024an ongizate fisikoan bigarren saria jaso zuen LABORAL Kutxak.



EROSKI: STIMULUS, LANKIT ETA DAVID

Teknologia berriak eta lan handia langileen osasun mentala eta fisikoa hobetzeko

Gaur egun Eroskin lanera ez joatea eragiten duten bi patologiarik handienak gi-harretako eta eskeletoetako nahasmenduekin eta osasun mentarekin lotutako gaiak dira. José María Cabanillas Eroskiko Plataforma Logistikoaren Pertsonen zuzendariarekin hitz egin dugu.



Nola kudeatu behar ditu Eroskik pertsonen osasuna eta ongizatea modu prebentiboan?

Osasun mentala esparruan, 2023tik, Stimulusen bidez, kolektiboko 17.000 pertsona ingururi aukera ematen ari gara kontsulta psikologiko bat egin dezaten, hala behar dutenean. Txat bidez, bideo-dei bidez edo aurrez aurre egin dezakete. Zerbitzua bazkideentzat eta bizi-kideentzat eskaintzen da, eta urtean bost aldiz erabil dezakete. Azaroan abiarazi genuen programa eta harrera oso ona izan da. Ia bi urtean 400 pertsona baino gehiagok erabili dute zerbitzua, eta guztira 1.500 kontsulta inguru izan dira.

Erabiltzailearen gogobetetze-datuak ere oso onak dira, ezta?

Pozik gaude zerbitzua erabili duten pertsonen iritzia oso ona delako. Gainera, Stimulusek gure dendetan une zailak kudeatzeko aukera ere eman digu. Adibidez, den-

da batean lankide gazte baten heriotza kudeatu dute. Lantaldea oso afektatuta zegoen eta Stimulusekin batera talde-terapia garatu zuten eta asko eskertu zuten. Beste kasu batean, langile baten autolisia eta heriotza Stimulusek eskaintzen digun zerbitzuarekin kudeatu genuen, eta pozik gaude emaitzarekin.

Kasu honetan, gure agintariei, denda-buruei... tresnak eskaini nahi dizkiegu, hobeto kudeatu eta prebenitzen saiatzeko. Informazioarekin -infografiak- eta prestakuntzekin. Infografia horien bidez, arrisku-egoerak detektatzeko aholkuak argitaratzen ari gara. Gainera, urtariletik aurrera, online bidezko prestakuntza-programa sakon baten bidez gai horretan sakonduko dugu.

Lankit

EROSKIk telemedikuntzako programa bat ere badu.

2024ko ekainean Telemedikuntza programa bat abiarazi genuen: Lankit osasuna Eroski izenekoa. Aukera ematen diegu, kooperatibako kolektibo osoari, mediku batiekin harremanetan jartzeko, App baten bidez. Lehen mailako arreta azkarra eskaintzen die aipatu medikuak, hamar espezialitate ezberdinetan, txat edo bideo-kontsulta baten bidez, eta 24/7 funtzionatzen du. Gustura gaude erabilerarekin. Medikuek horrek errezetatu egin dezake, eta ordaindun baimena (baja) emateko ahalmena ere badu, gehienez hiru egunekoa, urtean hiru aldiz, mina edo gaitzen bat duen pertsona lanpostura joan ez dadin. Lehen mailako arretako mediku baten zako sarbide azkarra eskaini nahi da, medikamentu bat hartzeko aukerarekin eta etxean geratzeko aukerarekin. 15 hilabete daramatzagu lanean. 12.700 kontsulta egin dira, 1.000 errezeta inguru eman dira eta ordaindutako 2.300 bai-



men kudeatu dira.

Eroskiko pertsonen %40k aplikazioa deskargatu du dagoeneko. Komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpaina asko abiarazi ditugu, eta uda baino lehen bideo bat egin genuen plataforma logistikoko, dendetako... pertsonekin. App-aren erabilera gehiago hedatu nahi dugu. Osasuna sustatu eta ondoezak artatu nahi ditugu. Absentziak, neurri handi batean, ondoez txikien ondorioz gertatzen baitira.

Giharretako eta eskeletoetako arazoen esparruan, fisioterapiako prebentzio-programa bat eskaintzen duzue. Programa nagusia Athlonekin garatu genuen, "David" izeneko programa da hain justu ere, eta oso pozik gaude orain arte lortutako emaitzekin. Bost mini-klinika ditugu Elorrio, Zornotza, Zaragoza, Bartzelona eta Madrilgo plataforma logistikoetan. Gainera, gure pertsonak Athlone instalazioetara joaten dira Donostian, Aretxabaletan, Zaragozan, Bartzelonan eta Iruñean.

Plataforma logistikoetan lan egiten duten pertsonen lesioak eta mina murriztu nahi ditugu. Guztira, orain arte 1.150 pertsona igaro dira programatik, 2021etik, Elorrioko plataforman esperientzia pilotua egin zenetik.

Minaren murrizketa %50ekoa izan da. Mugikortasunaren hobekuntza %38koa da eta indarraren hobekuntza %35ekoa. Eta programaren gogobetetze-maila zero eta hamar artekoa da, 8,5. Oso balorazio ona egiten dugu. Bizkarreko eskola ere badugu. Klasikoagoa.

Gainera, plataforma logistikoetan lan-jarduna hasi aurretik beroketa ariketak egiten dituzue, ezta?

Egunero, bileren aurretik, lan-jardunaren hasieran, beroketa-ariketak egiten ditugu. Bilera amaitzean, hiru minutuko beroketak egingo ditugu, taldeko buruak eta prestatu ditugun pertsonen dinamizatuta. Supermerkatu batean eta hipermerkatu batean ari gara probatzen. Ordutegien arabera sarrerak mailakatuak dira eta ordutegi onena bilatzen ari gara, eta funtzionatzen ari da. Garrantzitsua da zure osasun muskulueskeletikoa zaintzen lagunduko dizuten ohiturak hartzea.

“Minaren murrizketa %50ekoa izan da. Mugikortasunaren hobekuntza %38koa da eta indarraren hobekuntza %35ekoa. Eta programaren gogobetetze-maila zero eta hamar artekoa da, 8,5. Oso balorazio ona egiten dugu”

ORKLI: MUSKULU-ESKELETOEN ARAZOAK

Orklik aitortza jaso du arazo muskulu-eskeletikoen prebentzioan egindako lanagatik

Orkli etengabe ari da lanean bere kolektiboaren osasunarekin lotutako ekimen ezberdinetan; aitzindaria da Erakunde Osasungarrian, eta prebentziora bideratutako fisioterapia-zerbitzua du.

2021ean, Osalanek lan-eremuan muskulu-eskeletoen arazoak prebenitzeko jardunbide egokiak saritu zituen, aniztasunetik abiatuta. 2020an hasi zen proiektuak, perfil konkretu bateko pertsonak hartzen zituen aintzat. 20 urteko gizonezkoa, 75 kg eta 1,70 m-ko batez besteko gizonezkoak. Orkliko prebentzio-taldeak, jakitun izanik arrisku ergonomikoen ebaluazioek ez zutela kontuan hartzen enpresan zegoen aniztasun guztia (generoa, adina, altuera, pisua...), Osarteni, babes mankomunatuako zerbitzuari, lanpostu guztiak maila ergonomikoan berriro ebaluatzeko proiektu bat proposatu zion, kontuan hartuta generoaren, adinaren, pisuaren, altueraren, gorpuzkera fisikoen eta abarren ezaugarri garrantzitsuak, baremo tradizionalekin kontuan hartzen ez zirenak.

Proiektua garatu ondoren, hobekuntza ergonomikoak proposatu ziren, lanpostuetan lesio osteomuskularrak prebenitzeko. Epaimahaiak oso positibotzat jo zuen taldearen eta zuzendaritzaren parte-hartzearekin enpresaren kudeaketan izandako integrazio ona. —





Aurten ere, eta dagoeneko bederatzi dira, joan den ostiralean, irailak 26, MONDRAGONeko Talentuaren Praktika Komunitatearen urteko jardunaldia ospatu zen.

ATEAK Talentu juniorra MONDRAGONeko kooperatibetara erakartzea

Talentuaren PZ 2025 jardunaldia

Aurtengo edizioa talentua erakartzean oinarritu zen, ikastetxeen bidez eta, bereziki, Mondragon Unibertsitatearekin. Harrobi estrategia bat, talentua erakartzeko gero eta behar handiagoi eta MONDRAGONen DNA kooperatiboari erantzuten diena. Harrobi estrategia bat, talentua erakartzeko erronka gero eta handiagoari eta MONDRAGONen izaera kooperatiboari erantzuteko.

Goiza trinkoa izan zen; MONDRAGONeko 35 kooperatibak ikastetxeekin duten harremanaren azterketa baten datu nagusiak partekatuz hasi zen.

- 2024/25 ikasturtean, 1.272 ikaslek praktikak, ziklo amaierako proiektuak edo ikasketak dualak egin zituzten aztertutako 35 kooperatibetan.
- 407 lanbide-heziketako ikasleak ziren, 81 ikastetxetakoak eta 53 titulazio desberdinetakoak. Ikasleen %20 MONDRAGONeko LHko 5 zentroetako batetik zetorren.
- 865 ikasle izan ziren, 37 unibertsitatetakoak eta 126 gradu ezberdinetakoak. Ia erdia, 422 ikasle, Mondragon Unibertsitatean ari ziren ikasten.

Jardunaldiak enpresen eta hezkuntza-zentrozen arteko harremanaren bi praktika on partekatuz egin zuen aurrera:

- Esperientzia duala Natran Esther Carrilloarekin — Taldeko Giza Baliabideen zuzendaria —, Iosu Lizarralderekin — MUko irakaslea eta tutorea — eta Oier Iturricastilloarekin — myGA-DEko graduatua Natran—.
- Xavier Fouger eta Pierre-Marie Gautierrekin Dassault Systemes-en alternantzia-eredua eza-gutu genuen. Dassault Systemes 3D ikerketa eta garapenerako softwarean liderra da — Catia edo Solidworks markekin — eta EU4Dual partzuergoan parte hartzen du.

Ikasle kopuru handiak eta hezkuntza-sistemeekin dituen harremanen aniztasunak agerian uzten dute MONDRAGONek duen sinergia potentzial izugarria, erakarpen estrategiak ikastetxeen bidez koordinatzen badira.

ATEAK programa

Talentuaren CdPren jardunaldiaren zati handi bat MONDRAGONen Politika Sozio Enpresarialaren 3. Proiektua eta ATEAK proiektua kontrastatzen bideratu zen, lau helburu dituen programa:

- MONDRAGONeko kooperatibetan talentu juniorra erakartzeko estrategia propioak diseinatzea eta gauzatzea, txandakatze diferentzial eta aitortuko esperientzia bat eskainiz.
- Mondragon Unibertsitateko ikasleen fluxua handitzea MONDRAGONeko kooperatibetara.
- Beste unibertsitate batzuekin lankidetzako estrategiak zehaztea, kooperatiben talentu-beharrei erantzuteko.
- Talentu juniorra erakartzeko elkarlanerako plataforma berriak sortzea.

Hiru urteko iraupena duen programa hau garatzeko MONDRAGON Corporación, HUHEZI, Enpresagintza, MGEP eta MLAKoop-en artean partzuergoa eratu da. Gainera, Plus Europako Gizarte Funtzaren EFESO Programaren baterako finantzaketa lortu da CEPES Gizarte Ekonomiaren Espainiako Enpresa Konfederazioaren bidez.

Hedatuko diren beste proiektu batzuen artean, ATEAK programak MONDRAGONeko kooperatibetako bi zerbitzu martxan jartzea barne hartzen du, talentuaren CdP arek saioan kooperatibekin kontrastatu zirenak:

S1 - Harrobiaren estrategia definitzea kooperatiba bakoitzean

Zerbitzu honen helburua kooperatiba bakoitzari bere harrobi-estrategia definitzen laguntzea da, 12 asteko prozesu arin baten bidez. Prozesu horrek hiru azterketa-maila biltzen ditu:

- Harrobiko estrategia orokorraren definizioa, hurrengo galderei erantzunez: nola segmentatzen dugu erakarri behar dugun talentua?, zein ikastetxe lehenetsiko ditugu talentu hori erakartzeko?, zer eskainiko diegu? eta nola antolatuko gara?
- Kooperatibak lehentasunezkoztat jo dituen hezkuntza-zentroekin egiten dituen harremenen eta ekintzen esparrua.

- Ikasleen kolektiboak biziko duen esperientzia. Esperientzia tekniko-profesionala, esperientzia kooperatiboa eta ikaslearen bizi-zikloa hartzen ditu barne, erakarpenetik hasi eta fidelizazio edo irteerara arte.

S2 - Kooperatibetako mentoreentzako prestakuntza eta ziurtagiria

Zerbitzu hau kooperatibaren, ikastetxearen eta ikaslearen arteko harremanean parte hartzen duten enpresako mentoreak eta honi erlazionatutako beste rol batzuk prestatzean eta ziurtatzean oinarritzen da. Mentoreen kolektiboa funtsezkoa da ikasleak kooperatiban duen esperientziaren kalitatea hobetzeko. Askotariko kolektiboa da, eta prestakuntza praktikoa, modular eta lan-ingurunerara egokitutakoa eskatzen du. Talentuaren CdP arek jardunaldia bertaratu ziren 50 pertsona baino gehiagorekin izandako mahai inguruan aurkeztutako bi zerbitzuei babes irmoa eman zitzaizkien ekarpenak eginez. Orain, jasotako feedbacka eskertu behar da, eta bi zerbitzuak aberastu. Laster berritasun gehiagorekin itzuliko da.

Vicente Atxa

Mondragon Unibertsitateko errektorea eta MONDRAGONeko Ezagutza Dibisioko presidenteordea



Ezagutza eta pertsona izango dira gero eta gehiago gure kooperatiben lehiakortasunaren oinarria. Horregatik, gure politika sozio-enpresarialaren ildo estrategikoa bat ezagutza eta talentuarekin lotuta dago, eta Mondragon Unibertsitateko kooperatibetara doan pertsonen fluxua handitzea du helburu.

Erronka horri erantzuteko, Ezagutza Dibisiotik bultzada berezi bat emango diegu formazio dualari ATEAK proiektuaren bidez MONDRAGONeko kooperatibetan, egun ditugun harremanak indartu eta sendotuz.



Hiru urteko iraupena duen programa hau garatzeko MONDRAGON Corporación, HUHEZI, Enpresagintza, MGEP eta MLAKoop-en artean partzuergoa eratu da.



Ainara Udaondo

LANKI, Kooperatibismoaren Ikertegia

Gure eredu kooperatiboak gaurkotasan handia du gizarteko erronka sozial eta ekonomikoen aurrean erantzun errealeta interesgarriak eskaintzen dituelako. Errealitate kooperatiboa gazteengana hurbiltzeko eta erakargarri egiteko erantzukizuna daukagu unibertsitatean eta gure kooperatibetan.



Edurne Ruiz eta Begoña Echaburu

Talentu estrategikoaren kudeaketan espezializatutako ikertzailea eta I+T Pertsonak eta Talentua Arduraduna, Mondragon Unibertsitatea-MIK

MONDRAGONen harrobi-estrategia kooperatibei talentu-estrategian laguntzea bilatzen duen eredu eta prozesu batean oinarritzen da. Talentu estrategia hori, ezagutza zentroekin harremana, jarraipena, konpromiso kooperatiboa eta gazteentzako ikaskuntza-esperientzia bereizgarria bermatzean gorpuzten da.



Nekane Errasti

Mondragon Unibertsitatea, Ingeniaritzako koordinatzailea

Ezagutzen ez dena baloratzen ez delako, Goi Eskola Politeknikoko ingeniariartzako titulazioetan kolaborazio leihoak zabalduko ditugu, gure ikasleek MONDRAGONeko kooperatiben errealtatera hurbiltzeko aukera izan dezaten.



Josu Galarza

Mondragon Unibertsitatea, Ingeniaritzako programa dualaren koordinatzailea

Kooperatibako mentoreak klabeak dira prestakuntza dualean eta alternantzia. Funtsezkoa da mentoreak prestakuntza espezializatua eta etengabeko laguntza jasotzea ikaslearen esperientzia eraginkortasunez garatzeko. Sarritan beraien eskudago esperientzia batek zapore positiboa edo negatiboa izatea.



María Ruiz

MLAKOOP-eko Talentuko negozio garapenaren arduraduna

Gure kooperatiben talentu beharrei erantzuna emateko unibertsitateekin dauzkagun harremanak sendotu behar ditugu, beraiek tresna gisa erabiliz gure harrobia sortu ahal izateko. Horretarako, gradu eta master amaierako proiektuak eskaintzeko mekanismo berritzaile eta iraunkorrak bilatu behar ditugu. Horrek desberdinduko gaitu. ■

Illart Azkarate

Arizmendi Ikastolako zuzendaria



IKASTURTE HASIERA: NORABIDE GAURKOTUAK, BETIKO KONPROMISO SENDOAK

Ikasturte hasiera beti da aukera berriro hasteko; ikasle, irakasle eta familia guztien aurrean ateak irekitzeak ilusioa eta erronka berriak dakartza. Gure ikuspegitik, ordea, ez da soilik egutegi baten abiapuntua: ikastolaren norabidea gaurkatzeko unea da.

Aurten, gainera, plan estrategiko berri bategin hasiko dugu ikasturtea Arizmendi Ikastolan; datozen lau urteetan gure lana gidatuko duen plana, alegia. Iazko ikasturtean erabaki genuen hurrengo urteetarako norabidea modu partekatuan adostea, eta horrela, gure komunitateko eta herri eragiletako kide desberdinen elkarlanari esker, ikastolaren erronkak identifikatu genituen. Gogotsu gaude, beraz, horiei heltzeko.

Erronkak

Hiru erronka nagusi ditu gure datozen lau urtetarako bide estrategikoak.

Lehenengoa, aniztasuna eta euskalduntasuna: Ikasle bakoitzak desberdina da eta hori da gure aberastasun handiena. ikaskun-

tza-eredu berritzailea garatzen jarraitzea ikasle bakoitzari bere bide propioa egiten lagunduz, hori da gure erronka nagusia. Eta hori, gure identitateetik eta hizkuntzatik egingo dugu, euskalduntasunetik.

Bigarrenik, ondo prestatuta dagoen profesional talde indartsua eta konprometitua behar du Ikastolak. Ikasleekin egiten dugun bezala, ezinbestekoa da irakasleen prestakuntza, motibazioa eta ongizatea zaintzea. Profesionaltasuna eta berrikuntza pedagogikoa bultzatuko ditugu, baita norbana-koaren hazkunde pertsonala ere.

Eta hirugarrenik, Ikastolako identitatearen baitan komunitate kohesionatua osatzea. Ikastola ez da soilik ikasleen topagune

bat: komunitate oso baten bihotza da –profesionalena, familiara, kolaboratzaileena eta herriarena–. Ikastola kooperatiboaren eredu da horretarako tresna. Gure helburua eredu horren balioa zabaltzea da, elkarlan sare horiek estutuz eta elkarrekiko konfiantza eta lankidetzaren sendagoak eraikiz.

Ikasturte berria, aukera paregabea da ikastola biziberritzeko, berrikuntzak txertatzeko eta elkarrekin hazteko. Denon artean, ilusioz eta konfiantzaz, gure ikastola ikaskuntza, bizikidetzaren motor bihurtuko dugu. Denon esku dago bidea egitea eta guztion ekarpenak izango dira gure indargune nagusia. —

“Ikasturte berria, aukera paregabea da ikastola biziberritzeko, berrikuntzak txertatzeko eta elkarrekin hazteko”



Euskararen normalizazioa guztion ardura eta erantzukizuna da

Ikerketa baten arabera, euskararen erabilera nabarmen jaitsi da HUHEZiko ikasleen artean. Bilakaera ikusirik hainbat galdera sortzen dira: Zer dela eta? Zer egin dezakegu egoerari buelta emateko? Zeinen ardura da? Non eragin behar da?

LETIZIA GARCIA ETA **NEKANE ARRATIBEL** MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUHEZI FAKULTATEKO IRAKASLE-IKERTZAILEAK

Gizartean, oro har, eta hezkuntza eremuan, bereziki, aspaldikoa da euskararen erabileraren inguruan dagoen kezka. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean (HUHEZI) ere kezka hori ez da berria.

Gogora dezagun HUHEZI fakultatea bere sortze beretik definitu dela euskaltasuna sustatzeko duen misioaren arabera. 1976an sortu zen Irakasle Eskola irakasle euskaldunak hezteko helburupean. Izan ere, 80. hamarkadan, euskararen normalizaziorako bidean, nagusiki hezkuntzari eman zitzaion gizartea euskalduntzeko ardura eta, beraz, irakasle euskaldunak behar ziren ikasle elebidunak hezteko. Ordutik, lan horretan dihardu HUHEZik azken hamarkadetan.

Gizartean aldaketak...

Gizartea nabarmen aldatu da azken urteotan, baita hezkuntza testuingurua ere. Horrela, besteak beste, eskolan irakasten diren hizkuntzen kopurua hazi egin da, hizkuntza gutxituaren (euskara) eta hegemonikoen (gaztelania eta frantsesa) irakaskuntzari, atzerriko hizkuntza hegemonikoa gehitu zaio (gehienetan ingelesa). Gainera, migrazio-mugimenduek eraginda, ikastetxeetan kultura eta hizkuntza askotariko ikasleak ditugu. Garai batean gehienez erdara bateko edo biko familietako haurrak baldin bagenituen ere, orain ikasgela bakar batean hainbat familia-hizkuntza aurki ditzakegu euskaraz eskolatzen ari diren ikasleen artean. Garai berriek erronka berriak ekarri dituzte hezkuntza eremura ere eta hasierako ikasteredu elebidunak eleantiz bilakatu dira erronka hauei erantzun ahal izateko.

Garai berriek erronka berriak ekarri dituzte hezkuntza eremura ere eta hasierako ikasteredu elebidunak eleanitz bilakatu dira erronka hauei erantzun ahal izateko.

Bestetik, azken 40 urteotan, hezkuntzari esker, euskararen ezagutzari dagokionez urrats handiak eman dira eta balioan jartzekoa da. Hala ere, azken urteotako emaitzek erakusten dute ikasleen euskara maila apaltzen ari dela eta hizkuntza gutxiuaren erabilera sozialak erronka izaten jarraitzen duela. Bestela esanda, gure gizartean gero eta euskal-hiztun gehiago egon arren, euskararen erabilerak ez du gora egiten esperotako neurrian.

Eta hezkuntzan, zer?

Eskolari erreparatuta, euskara da gaur egungo EAEko ikasle gehienek eskolatzeko-hizkuntza (gehienak D ereduaren matrikulatzen dira), nahiz eta ez izan ikasle askoren lehen hizkuntza. Era berean, jakin badakigu eskola gainerako esparruak baino euskaldunagoa dela, baina ikasleak helduago diren neurrian, euskararen erabilera gutxitu egiten da eremu horretan, are gehiago eskola eremutik kanpo.

Unibertsitate eremuan ere badago euskararen erabilerarekiko kezka. HUHEZIrak etorrita, 2009an fakultateko eremu ez-formalean ikasleen artean neurtutako elkarrizketen %62 euskaraz izatetik, 2022an %39 izatera jaitsi dira. Azken urteotan, ikasle profila ere asko aldatu da eta duela urte batzuk baino askotarikoagoa da ikasleen hizkuntza-profila.

Fakultateko euskararen erabilera gertatutako jaietsieraren atzean egon daitezkeen arrazoiak ikertu ditugu, eta hona bildu ditugu ateratako ondorio nagusiak labur-labur: euskararen erabilera urria euskaraz daukaten gaitasun maila baxuarekin lotzen dute gure ikasleek, euskara eskolako hizkuntza da ikasle askorentzat (eskola eremuan eta nagusiki ikasgelan erabiltzen dute), gizarteko hizkuntzen asimetria kontzientzia gutxi dute, hizkuntza bat ala bestea erabili hautu

Gure gizartean gero eta euskal-hiztun gehiago egon arren, euskararen erabilerak ez du gora egiten esperotako neurrian.

Saretu beharra

Euskararen normalizazioaren ardura ezin da hezkuntza eta nagusiki eskolaren gain utzi. Saretzearen beharra eta modu kooperatiboan aritzeko beharra ezinbestekoa da, eskolak bakarrik ezin duelako, unibertsitateak bakarrik ezin duelako, herria eta herriko gainerako agenteak behar ditugulako baldin eta normalizazioa denon helburu bada. Herri mailako helburuak irudikatuko ditugu elkarrekin? Baitarakoak? Arlo eta sektore ezberdinetakoak? Euskaral Herri mailakoak? Non eta nola eragin nahi dugu?

pertsonaltzat jotzen dute, eta kasu askotan, euskarak ez du funtzio identitariorik, beste hizkuntza bat gehiago dela adierazten dute.

Norabidea

Kontuan hartu behar dugu, urte gutxiren buruan, euskararen normalizaziorako funtzio estrategikoa betekota dutela HUHEZIrak ikasketak egitera datozen irakaslegai zein komunikatzaileak. Euskara eta euskal kulturaren transmisioan lanbidean izango duten rolaz kontzientzia badute, jarrera baikorra agertzen dute, eta konpromisoak hartzeko prest daude, baina, aldi berean, ezintasuna aipatzen dute hainbatek, jaso ez dutena ezin baitute transmititu. Horretan badauka erronka hezkuntza sistemak, euskararen inguruko diskurtsoak lantzen, zentzuz betetzen, eta bide horretatik irabaziko badu euskarak eraginkortasun soziala. Norabide horretan, lagungarri izan daiteke soziolinguistikaren eta euskal kulturaren lanketa.

40 urte hauetan euskal hezkuntza-sistemak egin duen bidea gizarteko beste eremu batzuetan baino askoz oparoagoa izan da, eta hezkuntzan egindako ahalgina alferrikakoa izatea nahi ez badugu, gainerako eremuetan ere jarraipena eman behar zaio egindako bideari. Zer egin dezake norberak dagoen tokitik bere gertuko eremuan eragiteko? Zer egin dezakegu gertuko komunitatean?

Euskararen normalizazioa guztion arduraren eta erantzukizuna da. —



ALDAKETA ETA BERRIKUNTZA SASOIARI TINKO EUSTEKO PREST

2025-2028 sasoi estrategikoari ekin dio Goimek-ek [Danobatgroup] inoizko inbertsio handienarekin. 11,6 M€ inbertitu ditu doitasunezko mekanizazioetan eta mekanizazio handietan eskaintza indartzeko eta zabaltzeko. Era berean, eredu kooperatiboaren arloan lidertzak definitzeko eta kultura parte-hartzailea berrindartzeko sasoi izango da datorren hiru-urtekoa. Aitor Txurruka zuzendari nagusiarekin aztertu ditugu kontu hauek guztiak.

GORKA ETXABE

Aitor Txurruka GOIMEKEKO ZUZENDARI NAGUSIA

“Balio erantsi haundiagoko sektoreetara jauzia egin nahi dugu”

Batetik negozio estrategia, bestetik pertsonak, lidergoa eta eredu kooperatiboa. Arlo horiek guztiak dira garrantzitsuak etorkizuneko Goimek Kooperatiba eraikitzen jarraitzeko. Itziarren ditu instalazio nagusiak Danobatgroupeko enpresak, Gipuzkoako kostaldean. 90 lagunek osatzen dute lantaldea eta azken urtean 11,5 milioi euro inbertitu ostean, lantoki moderno eta funtzionalarekin egingo dio aurre datorren sasoi estrategikoari. Sozialki ere bada berezia Goimek, gaur egun lantaldearen %95 kooperatibako bazkide baita.

Ezer baino lehen, Aitor, zeintzuk dira Goimek-en erronka nagusiak datorren epealdi estrategikorako?

Plan estrategikoan jaso ditugu helburu guztiak, baina orokorrean esango nuke piezak mekanizatzeaz harago, ingeniari, diseinua eta garapena eskaintzen ditugula eta merkatuak hala pertzibitu behar gaituela. Fabrikatzeko gaitasuna dugu eta gure sektoreari balioa eranstean diogu. Era berean, dibertsifikazioa eta nazioartekotzea sustatu behar ditugu.

Goimek-eko produkzio sistemari dagokionez, eredu propioa ezarriko dugu. Gure kooperatibako pertsona orok, bakoitzak bere eremuan, erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezan. Estilo propioa bultzatu behar dugu, eredu kooperatiboaren bizipenean aurrera egingo duena. Pertsonak eta eredu birkonektatzen asmatu behar dugu. Beraz, bi multzo nagusitara mugatuko nituzke

helburu nagusiak. Dibertsifikazioa eta balio erantsia batetik, eta pertsonak eta lidertza bestetik.

Dibertsifikazioa aipatu duzu. Non, zer eta nola?

Lau eremutan diardugu lanean. Danobatgroupeko enpresentzat batetik, eta beste hiru sektoretan: aeroespaziala, ekipo ondasunak eta energia. Kontua da zazpi alorretara eman nahi dugula jauzia. Tipologiagatik eta sektoreagatik bereizten ditugu zazpi arlo horiek.

Azken finean, balio erantsi haundiagoko sektoreetara jauzia egin nahi dugu. Sektoreei dagokienez; aeroespazialean, eolikoan, ekipo ondasunetan, makina-erremintan eta ontzizigintzan egin nahi dugu eskaintza. Bezero tipologiari dagokionez, bi talde banatu ditugu: batetik hurbileko bezeroak (erabakiak Euskal Herrian hartzen dituztenak baina nazioarteko proiektzioa dutenak, eta balio erantsi eta bolumen handiko produktuak eskatzen dituztenak) eta bestetik gure taldeko, Danobatgroupeko enpresak.

Digitalizazioari nola ari zarete aurre egiten?

Digitalizazioa zeharkako helburua da eta ez da soilik barne efizientzia hobetzeko. Balio erantsiaren esparruan, gure eskaintzari gaineratzen diogun abantaila konpetitiboa da. Hau da, bezeroak online izan dezake proiektu-prozesuaren gaineko informazio guztia, exekuzioa gertatzen den aldi berean.

“Zerbaitetan sinisten badut, buru-belarri jartzen naiz hura lortzeko”

Zuen zerbitzu, produktu, balio eskaintzaren zehaztasunera joz gero, zer da Goi-mek-ek gaur eskaintzen duena eta etorkizunean eskaini nahi duena?

Soluzio osoak eta integralak eskaintzen ditugu. Era berean, diseinu fasean lan-kidetza teknikoaz eta aldi bereko ingeniari-tza zerbitzuaz arduratu gaitezke. Materialen erosketaren kudeaketa egiten dugu eta galdaketarako goi mailako bazkide propioa dugu, Sakana Koop. fundizioa. Era berean, planoen eta baldintza teknikoaren araberrako mekanizazioa egiten dugu. Azpimultzoen muntaketa, egiaztapen zerbitzua, ziurtagiria eta bermea eskaintzen dizkiegu gure bidelagun eta bezeroei.

Azken urteko inbertsioen inguruan, zer da horri esker lortuko duzuen?

Gure gaitasuna handitzen duten makinatan inbertitu dugu. Inbertsioek, du-darik gabe, hazkundera gauzatzea dute helburu. Eta aeroespazialerako gunearen indartzeak, sektorean espezializatzen jarraitzeko aukera emango digu. Orohar gaitasunetan hazi nahi dugu, sektore berrietan sartzeko aukera zabaldu, eta tamaina zein pisu handiagoko piezak mekanizatu, goi mailako kalitatearekin eta era integralan. Finean, azken belaunaldiak makina berri hauekin, ekoizpen gaitasunak handitzeko eta eskaintza dibertsifikatzeko aukera izango dugu.

Estilo propioa

Harreman estiloari erreparatuz gero, estrategia berria ezarri nahi duzue, ezta?

Motzera gure bezeroekin elkartu eta haiekin estrategiak moldatu nahi ditugu. Gaur egun estrategia malguak ezinbestekoak dira. Alternatibak bilatzen jakitea oso ona da. Esan daiteke, epe motzean egokitze gaitasuna dela estrategia. Gure makinek edozein sektorerako balio dute eta merkatuan presente egon behar gara. Azkartasunez, joerak ulertzen eta interpretatzen jakin behar dugu. Esaterako, aeroespaziala aukera bada eta

Definitu zure burua hitz batekin.

Zerbaitetan sinisten badut, buru-belarri jartzen naiz hura lortzeko.

Afizio bat.

Bat baino gehiago esango dizkizut. Mendia, sukaldaritza, zesta-punta... Eta bestetik pertsonen garapenaren inguruko gaiekin ere asko disfrutatzen dut.

Mendian bakarka edo taldean?

Inspiratzen nau mendiak. Nahiago dut bakarrik aritzea.

Zer ez zaizu ezer gustatzen?

Garai hauetan ikusten ari garen nagusikerian zentratutako estiloa esaterako, ez zait batere gustatzen.

Liburu bat.

La Paradoja liburua oso ona da lidergo kontzeptua ulertzeko. Piramide transbertsalaren teoria planteatzen du. Liderra behean eta gainerakoak goian. Pertsonak garatzen lagundu behar dute liderrek. Zerbitzari izan behar dute, pertsonen garapenean arituko direnak, luzera begira. Entzutearen bertutea lantzen duten horietakoak. Robin Sharmaren *El monje que vendió su Ferrari* liburua ere gustuko dut.

Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugan bizi zara, Mutrikun, realzale edo athleticzale?

Bilbon jaio nintzen kasualitatez eta realzalea naiz. Edozelan be oso mutrikuarra naizela esango nuke. Pentsa, nire bigarren abizena Motriko da eta Kalbarixo egunean jaio nintzen.

Zinea?

Serie asko ikusten ditugu familian, gure momentuetako bat izaten da. Pelikula bat aipatzearen *La lista de Schindler*.

Oporretan zein plan gustuko?

Autokarabana dugu eta Europan barrena ibiltzen gara familian (emaztea eta hiru seme). Portugal, Italia, Kroazia, Frantzia, Alemania... hori da gure aukera eta gehien gustatzen zaiguna.

eoilkoak beherantz badoaz, argi dugu norantz moldatu behar dugun gure produkzioa.

Merkatua, produktua, joerak... alde batera utzi ditza-gun eta arlo sozialaz, pertsonaz, arituko gara. Arlo horrek ere asko kezkatzen zaitu, ez da horrela?

Talde guztia, pertsona guztiak, erabat lerrokatuta egon behar dugu proiektu kooperatiboarekin. Denok kontziente izan behar dugu proiektu hau partekatua dela. Kooperatibismoa egunerokoan, erabakietan, hartu-emanetan eta espazio konpartituetan gauzatu behar dela jakitun izan behar gara. Proiektu honetan guztion konpromisoa eta lana ezinbestekoa da eta egunero, keinu txikienetan ere ikusaraztea gustatuko litzaiguke. Kultura parte-hartzailea bultzatu behar dugu. Enpresa, pertsonak, lana, ongizatea eta autonomia uztartuko duen kudeaketa bultzatu nahi dugu. Pertsona garatua askoz konprometituago dago bere proiektuarekin. —

Kooperatibak, euskara ikasteko ingurune aproposak

Asko dira MONDRAGONen euskararen ezagutza hobetu duten pertsonak. Izan ere, kooperatibek horretarako baliabideak eskaini dituzte, besteak beste, euskaltegieta-ko matrikulazioak sustatuz eta mintzapraktika saioak antolatuz.

Halaber, ikasitakoa praktikan jartzeko konfiantzazko ingurune bat eskaini dute, lankideak ikasketa-prozesuan inplikatur eta euskarari kooperatiba barruan komunikazio-funtzioak esleituz.

Matrikula egiteko epeak zabalik daude. Aukera asko daude, eta hainbat lekukotza jaso ditugu, inspirazio-iturri izan daitezten.

José Andrés Hernández Mintzapraktika saioak [Ederfil Becker]

Badaramatzat urte batzuk euskara ikasten. Ederfilen, giroa beti izan da oso euskalduna, eta, gainera, kooperatibak erraztasun handiak eskaintzen ditu ikasteko eta hobetzeko. Horrek guztiak animatu ninduen hizkuntzari berriro hel-
tzeko eta pixkanaka aurrera egiteko pausoa ematera. Duela 5 edo 6 urte inguru hasi nintzen.

Prozesuaren nire balorazioa oso positiboa da. Gehien balio didana lankideekiko praktika da; izan ere, horietako batzuekin beti euskaraz hitz egiten saiatzen naiz, hori baita gehien hobetzeko modua. Euskara dinamizatzaile bat ere badugu, Ekain, eta asko laguntzen digu unerik pattalenetan aurrera egiten.

Nire lankideen babesa funtsezkoa da. Eskertzen diet nirekin duten pazientzia beraiei euskaraz zuzentzen natzaientean, batzuetan gauzak behin baino gehiagotan errepikatu behar izaten dizkidatelako. Egunerokoan laguntzen didate aurrera egiten.

Zalantzan dagoen lankide bati animatzeko esango nioke, denborarekin euskara maila eta taldeetako integrazioa handitzen doazelako. Askotan ez da erraza, enpresaren egunerokoan tentsio edo estres handia dagoelako, baina garrantzitsua da gelditzea, saiatzea eta euskara erabiltzea, nahiz eta denbora edo arreta gehiago kostatu. Eta horretarako, lankideak, beren pazientziarekin, laguntza handia dira.



“Zalantzan dagoen lankide bati animatzeko esango nioke, denborarekin euskara maila eta taldeetako integrazioa handitzen doazelako”

Marian Yuste Ulermena lantzeko saioak [Danobatgroup]

Hasteko aukera Giza Baliabideen sailaren proposamen baten ondorioz sortu zen. Iruditu zitzaidan euskararekin nuen harremana hobetzen lagun ziezadakeela, eta onartzea erabaki nuen.

Egiten dudun balorazioa oso positiboa da. Ikastaroak nire hiztegia zabaltzeko eta "buruko arintasun" handiagoa izateko aukera eman dit, bilera batean euskaraz hitz egiten denean, laneko gaiak aipatzen direnean edo elkarrizketa informala-goetan, kafearen bueltan esaterako, ulertzeko. Gainera, oso prozesu dinamikoa izan da, eta gaurkotasuneko gaiak jorratu dira; horrek entretenigarriago bihurtzen du eta gehiago inplikatzeko zaitu. Antzeko maila duten beste lankide batzuekin egoteak ere laguntzen du, galdetzea errazagoa bihurtzen delako. Xabierrek, irakasleak, bere aldetik dena jartzen zuen denok ulertzen genduela ziurtatzeko, nahiz eta batzuetan gauzak pixka bat zail jartzen genizkion.

Bai kooperatibak, bai nire lankideek, oso erraz jarri didate. Euskaraz etengabe hitz egiten den sail batean egiten dut lan, beraz, hobetzen asko laguntzen didan murgiltze bat da. Edozein zalantza izanez gero, ez dute inoiz arazorik izaten laguntzeko.

Zalantzan dagoenari, merezi duela esango nioke. Giro lasaian zaude, hobetzen laguntzeko prest dagoen irakasle batekin. Hiztegia zabaltzen zein "belarria egiten" laguntzen dizu, eguneroko bilerak edo elkarrizketak errazago jarraitu ahal izateko. Askotan oinarritzko hiztegi bat izaten dugu, baina arintasuna ere behar da elkarrizketa bat jarraitzeko eta testuingurua ulertzeko. Eta ikastaro honek bietarako laguntzen du.



“Euskaraz etengabe hitz egiten den sail batean egiten dut lan, beraz, hobetzen asko laguntzen didan murgiltze bat da. Edozein zalantza izanez gero, ez dute inoiz arazorik izaten laguntzeko”

Miriam García Euskara ikasteko euskara eskolak [Lagun Aro EPSV]

Nire euskara ikasteko prozesua aspalditik dator. Nire ama hizkuntza gaztelania da eta txikitik eskolan dena gaztelaniaz ikasi nuen. Nerabezaroan, ordea, euskara ikasteko harra sartu zitzaidan eta Tolosako Aitzol euskaltegian aritu nintzen 8 urtez. Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit, eta nola ez, gurea ere bai. 2017an Lagun Aro hasi nintzen lanean. Nire aurreko enpresan euskaraz hitz egiten zen, baina Lagun Aro askoz gehiago. Euskara Plana dugu, eta nire egunerokotasunean, adibidez, emailak euskaraz idazten ditut.

Enpresan euskara eskolak zeudela komentatu zidaten eta berehala apuntatu nintzen.

Esperientzia oso baikorra izan da. Eskola hauetan ez da hizkuntza bakarrik ikasten; gure lanean erabiltzen dugun hiztegi eta esamolde espezifikoak lantzen ditugu. Ni Administrazioa eta Finantzak sailean nago, eta pertsonal arloko zereginak egiten ditut. Lehen, adibidez, jubilazio edo pentsio kontuak euskaraz kalkulatzeko kostatu egiten zitzaidan, eta hori ere klaseetan landu dugu. Orain nire burua arinago eta segurtasun handiagoarekin hitz egiten ikusten dut. Emuneko irakasle oso onak izan ditugu, eta niretzat esperientzia bikaina izan da. Gainera, ikasten ari zarenean eguneroko aplikazioak dezakezu, baita familiarekin ere; seme-alabekin euskaraz egiten dut.

Oso gustura nago. Lankideen aldetik, asko hitz egiten da euskaraz eta zerbaitek gaizki esaten baduzu, ez da ezer gertatzen. Jendeak asko estimatzen du egiten duzun esfortzua. Hasieran, hemengo hizkera kostatu zitzaidan: Arrasatekoa, Oñatikoa, Markinakoa... baina gero belarria egiten duzu. Orain, askotan, umeekin ere Arrasateko hizkera ateratzen zait.

Nire gomendioa argia da: oso inbertsio ona da eta merezi du. Zalantzan dagoenari esango nioke arintasun handiagoa lortuko duela, pila bat hobetuko duela eta, batez ere, laneko gai zehatzak landuko dituela.



“Nire gomendioa argia da: oso inbertsio ona da eta merezi du. Zalantzan dagoenari esango nioke arintasun handiagoa lortuko duela, pila bat hobetuko duela eta, batez ere, laneko gai zehatzak landuko dituela”



BOST HAMARKADA ERALDATZEN

Badira hilabete batzuk Arrasateko [Gipuzkoa] Olandixo mendi-hegalaren birgaitze integrala amaitu zela. Bertan daude LagunAro, Ikerlan, Laboral Kutxa edo Korporazioaren egoitza nagusiak.

JAVIER MARCOS

“Nola aldatzen diren gauzak, kamarada”, zioen Gabriel Arestik Nire aitaren etxea defendituko dut, euskal poetaren testu enblematikoenetako batean. Eta bi argazki horiek ikusita, 50 urte baino gehiago igaro direnen artean, gauzak aldatu egin dira, eta asko gainera. Perspektibarekin begi-

ratzea beti da gomendagarria gauzen bilakaera ikusteko. Une hurbiletik haratago ikusten, gertaerak sakon eta zentzuz interpretatzen, ibilbideak, ahaleginak eta ikaskuntzak ulertzen eta emaitzak objektiboki baloratzeko laguntzen digu.



Bi irudi horiek aztertzean, lehen begiratua formetan zentratzen da gehien, hardwarean, hainbat eraikin integratu ondoren espazio hori nola modelatu den. Eta lehen eskaneatze horren ondoren, denborak on egin diola esan behar da, duintasunez "zahartu" dela.

Baina, egia esan, lurren eta eraikinen argazkia baino zerbait gehiago da. Kontzeptuen irudi bat da, ezkerreko argazkian oraindik eraikitzen ari dena eta arizmendiarrietar aforismo horrekin oso le-rrokatua, "ideia ona ekintza bihurtzen dena da" dioena. Argazkian, besteak beste, kontzeptu hauek ageri dira: hezkuntza (Mondragon Goi Eskola Politeknikoa+Alecop); ikerketa (Ikerlan); finantzak (Laboral Kutxa); gizarte-babesa (LagunAro); edo lankidetzak (bi erakundeen artean). Horiek guztiak funtsezkoak dira gure Kooperatiba Esperientziaren garapenean.

Ikuspegi utopiko hartatik sortu da errealitate nabarmen hori. 70eko hamarkadaren hasierako obretatik Olandixo Parke honetara. Duela gutxi aurpegia garbitu diote, eta espazio moderno eta garai berrietara egokitu dela erakutsi dute. Lan kolektiboa eta ingurunearen benetako eraldaketarekin konprometitako begirada lortzeko gai denari buruz hitz egiten duen leku bat. —

Perspektibarekin begiratzea beti da gomendagarria gauzen bilakaera ikusteko.



Osakidetzak martxan jarri duen Osasun Eskola+ plataforma digitalaren sorreran parte hartu du MLAKOOPek. Proiektuaz hitz egin dugu Judit Ruiz de Munain zuzendariarekin.

GORKA ETXABE

Judit Ruiz de Munain

OSASUN ESKOLA+ PROIEKTUKO ZUZENDARIA MLAKOOP-EN

“Protagonista izan behar dugu gure osasunaren zaintzan”

Zertan datza proiektua?

Osasun Eskola+ (OE+) Osakidetzaren osasun-hezkuntzako plataforma digital berria da. Funtsean, osasun arloko informazio eta prestakuntza fidagarria eta kalitatezkoa jartzen du herritarren eskura, eta Osakidetzaren estrategiaren zati garrantzitsua da. Teknologia eta formatu digitaleko prestakuntza edukien estraegia sendoa uztartzen ditu, eta MLAKOOPek hor hartzen du parte nagusiki. Prestakuntzarako Irtenbide Teknologikoen negoziotik.

Proiektuak Next Generation Europako Funtsen babesa du, eta Espainiako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetzaren partaidetza.

Zeintzuk dira bere helburuak?

Batez ere, Euskadin bizi garen pertsonen osasun-alfabetzea hobetzea da helburua, ezagutza horren bidez

geure burua zaintzeko eta gure osasunari buruzko erabakiak hartzeko. Horregatik, garrantzitsua da prestakuntza edukiak fidagarriak eta erabilgarriak izatea, eta pazienteen, zaintzaileen eta herritarren benetako premiei erantzutea.

Era berean, Osakidetzako profesionalek gure Osasun Karpetan ikusiko dugun gaixotasunarekin lotutako prestakuntza eskaintzeko balioko du tresnak, eta OE+era eramango gaitu, egin ahal izateko.

Elkarlanean bultzatutako proiektua da, izaera publiko-pribatu nabarmena duena.

Hala da. Osakidetzak, Wetak eta MLAKOOPen arteko lankidetzaren emaitza da. Osakidetzak ikuspegi orokorra eta dibulgazio estrategiaz arduratzen den taldea ekarri ditu, baita osasun arlo bakoitzeko espezialistak ere. Wetak eta MLAKOOP arduratu dira edukiak he-

datzen diren oinarritzko erabiltzailearen esperientzia plataformaz, eta Osakidetza-ko informatika zerbitzuak parte hartu du barne-aplikazioekiko integrazioan eta erabiltzaileei begira.

MLAKOOPen edukien estrategiaren diseinuan eta garapenean parte hartu dugu. Oro har, ikuspegi publiko-pribatu horrek ahalbidetu du OE+ren estrategia sendoa eta denboran iraunkorra izatea.

Proiektu berritzailea da, erronka berria, ezta?

Gure eskumenekoa den aldetik, edukien estrategia, MLAKOOPen Prestakuntzarako Irtenbide Teknologikoen negozioan oinarritua, jorratu dugun proiekturik handienetako bat dela esan dezaket, bai edukien strategiaren irismenagatik, baita Osakidetza-ko talde adituekin lan egiteko erronkagatik ere. Prestakuntza estrategiek, ikaskuntza metodologiekin, edukien digitalizazioarekin eta tresna digitalen laguntzarekin sortzen den edozein arazori irtenbidea eman dakiogela frogatuz, eta horren froga da proiektu hau.

Eduki bakoitzaren produkzio prozesuan guztiok hartzen dugu parte: Osakidetza-ko forma eman eta eduki bakoitza berrikusten du azken ebidentzia zientifikoa aplikatuz; MLAKOOPek hezkuntza-, prestakuntza- eta digital-ikuspegiaren zatia ematen du, arreta atxikiko duten eta genero ikuspegiarekin diseinatu dauden eduki interaktiboak sortuz, irisgarritasun irizpideak betez eta hezkuntza eremuari arreta berezia eskainiz. Kasu honetan, edukiak eta plataforma euskara-gaztelania elebidunak dira, eta, horretarako, jakina, gure itzulpen- eta komunikazio-negozioak eskaintzen dituen zerbitzuei heldu diegu.

OE+ enpresa martxan egon den lehen hilabeteetan milaka bisita izan ditu, eta oraindik ez da aurkeztu. Zuen ustez, zein izango da proiektuak sortuko duen eragina?

Hasierako emaitzek erakusten dute potentziala: 31.000 erabiltzaile aktibo baino gehiago eta 2.000 preskripzio sei hilabeteen. Aurkezpen ofizialarekin oso inpaktu handia espero dugu.

Zer gehiago gehitu nahiko zenuke?

Proiektuaren taldekide guztiak zoriondu nahi ditut Learning Technologies Awards sarietan finalista izateagatik.

OE+ nori zuzenduta dago eta, funtsean, nola funtzionatzen du?

Herritar guztiei zuzenduta dago, eta bi mailatan funtzionatzen du. Irekian edozein pertsona sar daiteke, eta, era berean, sarbide pertsonalizatua dago Bkq bidez. Adibidez, nire medikuak diabetesa diagnostikatzen badit, intsulina errezetatzeaz gain, edukiak agindu ahal dizkit kontsultako ordenagailutik. Diabetesari edo tratamendua emateko moduari buruzko edukiak izan daitezke, baita elikadura osasungarriari buruzkoak ere. Nire aplikazioan, Osasun Karpetan, gomendio horiek dauzkat, eta zuzenean sartu naiteke OE+en kontsultatzeko. Prozesua ixteko, nire medikuak jakin deza- ke eduki horiekin interesatu naizen.


Egindako biderei eta egiteko dagoenari buruz hausnartzera bultzatu gaituen errekonozimendua izan da. Oraindik ez dakigu epaia, baina irabaztea espero dugu. —

“Batez ere, Euskadin bizi garen pertsonen osasun-alfabetatzea hobetzea da helburua, ezagutza horren bidez geure burua zaintzeko eta gure osasunari buruzko erabakiak hartzeko”



LagunArok webgunea berritu du

Kooperatiba eta kolektiboaren esperientzia digitala hobetzeko helburuarekin.



LagunArok, webgunea birdiseinatuz, pauso garrantzia eman du bere estrategia digitalean, kooperatiba, mutualista, pentsiodun eta onuradunekin harremanetan jartzeko kanal nagusia delako.

“Webgunea kooperatibekin eta gure kolektiboarekin dugun harreman kanal nagusienetako bat da, eta egungo beharretara egokitu behar genuen. Aurreko webguneak urteetan bete zuen bere funtzioa, baina gaur egun erabiltzaileek berehalakotasuna, argitasuna eta erabilerraztasuna nahi dute. Aurrerapauso bat eman nahi genuen esperientzia digitala hobetzeko”, adierazi digute LagunArotik.

Helburu nagusia

Informazioa eta izapideak erraz eta modu intuitiboan eskuratzea erraztea, eta LagunAroren gizarte babeseko sistema ulergarriagoa egitea. Erabilgarritasunean jarri da arreta, mutualistek, pentsiodunek eta onuradunek klik gutxitan bilatzen dutena, eta kooperatibek ingurune digital arinagoa izatea eta beren prozesuetara egokitua egotea. Gainera, webguneak argiago eta errazago transmititzen ditu modeloaren ezaugarriak.

Berrikuntzak

Aldaketa esanguratsuenen artean, nabigazio errazagoa eta intuitiboagoa nabarmentzekoa da, baita ohiko izapideetarako sarbide azkarra ere. Berrien eta edukien atala ere berritu da, argiagoa eta erabilgarriagoa izan dadin. Gainera, LagunAroren kin bat egiteko atal berri bat ezarri da, LagunAroren talentua erakartzeko berrikuntza garrantzitsua dena.

Esparru bisualean, diseinu moderno, erakargarri eta gailu mugikorretara erabat egokitutako dagoenaren aldeko apustua egin du erakundeak, edozein gailutan esperientzia digital koherentea, eroso eta eguneratua eskaintzeko.

Birdiseinu hori estrategia zabalago baten parte da. “Hurbiltasunaren eta garrantasunaren aldeko apustua indartzea da. Eskuragarriago egon nahi dugu eta kooperatibei, mutualistei, pentsiodunei eta onuradunei bizitza erraztu nahi diegu”, adierazi dute LagunArotik. Lehen hilabeteetan egokitzapen gehigarri batzuk egingo dira funtzionamendua optimizatzeko, etengabe-ko hobekuntza prozesu batean. Azken batean, birdiseinu hori “ez da azken puntua, baizik eta gure kolektiboaren esperientzia digitala ebolutzionatzen eta hobetzen jarraitze-ko abiapuntua”.

LagunArok eskerrak eman nahi dizkie webgunea berritzeko prozesuan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiei, haien ahalegina funtsezkoa izan baita tresna digital honek erakundearen nortasuna eta balioak erabat isla ditzan.

Helburua informazioa eta izapideak erraz eta modu intuitiboan eskuratzea eta LagunAroren gizarte babesa ulerterrazagoa egitea da.



Beatriz García, LagunAroko Afiliazio, Kotizazio eta Pentsioen zuzendari berria

Beatriz García LagunAroko Afiliazio, Kotizazio eta Pentsio Sailko zuzendari berria izendatu dute. Ibilbide bat

15 urte baino gehiagoko ibilbidea dauka taldean, eta afiliazio eta kotizazioen arduraduna izan da. Beatriz oso ezaguna da kooperatibetako kudeaketa sozialeko sailetan. Denbora horretan, Alicia Bollarren eskui-

neko eskua izan da eta orain saileko zuzendaria, ikuspegi partekatua eta sistemaren ezagutza sakona sendotuz.

Orain, sailaren buru izateko ardura hartzen du bere gain, kooperatibak mutualista eta pentsiodunekin duten harremana sendotzen jarraitze-ko helburu irmoarekin, egungo eta etorkizuneko beharrak asetzeko.

LagunArok “eskerrak eman nahi dizkio Aliciari, bere konpromisoa eta entrega funtsezkoak izan direlako gurea bezalako sistema berezi eta bereizgarria indartzeko eta babesteko”.

Iraunkortasuna, partekatutako bidea

Uda honetan, LagunArok inkesta bat egin du bere interes taldeek iraunkortasunaren inguruan duten iritzia ezagutzeko. Parte-hartzea oso handia izan da, eta informazio oso baliotsua bildu da, LagunAroren I. Iraunkortasun Plana definitzeko oinarri gisa balioko duena.

Datozen hilabeteetan, plan horri forma emango zaio, eta eremu horretako konpromisoak eta zutabeak jasoko ditu. Definituta dagoenean publiko guztiekin partekatuko da, eta, horrela, eredu arduratsuago eta iraunkorrago baterako bide kolektiboa indartuko da. Erakundetik “proiektu berri honi pertsona guztiek egindako ekarpenak” eskertu nahi dira. —

MONDRAGON, etorkizuneranzko trantsizioan dagoen ekosistema kooperatiboa



2025eko urriaren 29tik 31ra Bordelen Global Social Economy Forum egingo da, Gizarte Ekonomia Solidarioko (edo GES) ekosistema globaleko eragile ugari biltzen dituen biurteko topaketa. Aurtengo edizioak gai zehatz bat du ardatz: Gizarte Ekonomia Solidarioa, lurralde erresilienteetarako eta bertako biztanleen ongizaterako bidezko trantsizioaren baldintza gisa.

MIGUEL DE LA FUENTE COSGAYA LANKI KOOPERATIBISMOAREN IKERTEGIA

Eta gai horren inguruan, Forumerako hasierako liburu bat argitaratzea proposatu da, mundu osoko GES ekimenen aniztasuna, haien ikuskeren aniztasuna eta erronka globalei erantzuteko egiten duten ekarpen garrantzitsua aztertuko dituen. Lanak hainbat ekarpen izango ditu, eta horietako bat MONDRAGONena izango da. Zehazki, munduko egoera kontuan hartuta sustatu beharreko eredu ekonomikoei buruzko egungo eztabaidetan parte hartzera gonbidatu gaituzte. GESen ekosistemek egungo zibilizazio-erronkei nola erantzun diezaieketen azaltzeko galdera sorta bat. Sinfonia Kooperatiboan sortzen zirenen moduko galderak: “Galdera sorta bat dauka / orain munduak guretzat / eta gure erantzunak / geroke haziak dira”.

MONDRAGONen, gaur egun, kontzientzia zabala dago gure kooperatiben jarduerak munduan sortzen dituzten arazoei buruz, eta gero eta ahots baimendu gehiagok inpaktu lokal eta transnazional horiek lehengoratzeko mekanismo eraldatzaileak proposatzen dituzte.

Iraunkortasuna, genero-berdintasuna, birlurraldetzea eta euskal kulturaren eta euskararen defentsa MONDRAGONen irekitzen den etapa berri honetako politika sozioenpresarialaren elementu nagusiak dira. Gure ekosistemako hainbat instantziatatik aktiboki lantzen diren elementuak. Kezka horiek beti egon dira hor, baina, batzuetan, enpresa multinazionalekin lehiatu behar duten kooperatiben behar ekonomikoei baztertu egin dituzte.

Munduko agertoki politikoa eta ekonomikoa

Munduko agertoki politiko eta ekonomikoa azkar aldatzen ari da. XX. mendearen erdialdean ezarritako mundu-ordena kolokan dago. Joera kontserbadore eta autoritarioak, protekzionismoa eta aldebakarreotasuna ikusten ditugu, Historiako beste une batzuetan pentsarazten digutenak. MONDRAGONeko kooperatiben

sortzaileek langile guztientzako enpresa-eredu demokratiko eta parte-hartzailerik baten alde egiten bazuten, garai hartako gizartearen ez zutelako parte-hartze politiko pluralista eta demokratikorik. Kooperatibismoa demokraziaren gotorleku bihurtu zen lanaren munduan. Apartidista, bai, baina demokratikoa, azken finean.

Gaur egun, sortzen ari diren eredu politikoek ageritoki autoritarioago baten alde egiten dute, non askatasun demokratikoen egiturak eta gizarte pluralistak murriztu daitezkeen merkatuaren edo partikular bartzuen interesen mesedetan. Sistema kapitalistak inolako zalantzarik gabe defendatzen du klase, genero edo etnia desberdintasun handiagoa, eta horrek une berri honetan kooperatibek duten zereginari buruz galdetzeraz garamatza. Kooperatibak demokraziaren gotorleku praktikoa bihurtuko al dira arlo ekonomikoan? Zein da MONDRAGONen zeregina ziklo berri honetan?

Kooperatiben identitate-ahalmena

Kooperatibismoa emantzipaziorako tresna kolektiboa izan da eta bada. Kooperatibek gizarte-eskaera berri eta desberdinetara egokitu behar dute. Gizarte likidoetan, adostasun ez-baztertzailerik sortzeko balioko duten identitate plural eta irekiak eraikitzea lehen mailako beharra da. Hala, kooperatibek nortasuna eraikitzeko tresna gisa balio dezakete. Orain arte, gure kooperatibak gizartearen eraldatzeko tresna kolektiboak izan ziren, kosmobisio batekin (erlijiosoa, nazionala edo langile-klaseari lotua) sendoa eta koherenteak ziren identitateak sortzeko gai zirenak. Gaur egun, kooperatibismoa norberaren identitatea adierazteko tresna da, antolakunde kolektibo baten bidez.

Kooperatiben identitate-potentzialtasun hori aprobeztatzeko belaunaldi berriak mobilizatzen lagun dezake trantsizio ekologiko justua, genero-berdintasuna, lan ikusezina edo kultur aniztasuna bezalako eztabaidea-gai diren nozioen inguruan.

Gaur egun, kooperatibismoa norberaren identitatea adierazteko tresna da, antolakunde kolektibo baten bidez.

Kooperatibek errealitate desberdinetako gazteak baliotetan lerroka ditzakete, arazo globalei erantzun sozioekonomikoak emateko. MONDRAGONen, kooperatiben dimentsioak eta ibilbideak zaildu egiten dute horrelako trantsizioak egitea, baina Gizarte Ekonomia Solidarioa gazteentzat dituen ahalmenen adibide inspiratzailea izan daiteke. MONDRAGON Esperientziako kooperatibek euskal kooperatibismoan irekitzen den ziklo berriaren oinarri kolektiboak ezarri dituzte, eta 30.000 lan-bazkide baino gehiago mobilizatzen hasi dira aurre egin behar diegun trantsizio horietarantz.

Sinfonia Kooperatiboak erantzun argia eman zuen: “Segiko dugu amesten / gizatasuna lanean”. Horregatik, helburu hori gogoan izan behar dugu eta komunitate batu eta iraunkorrak eratzen jarraitu behar dugu, belaunaldi berriak mobilizatzeko eta gure gizarteentzat lan-alternatiba (ikusgaia eta ikusezina) duinak proposatzeko gai direnak. Hau da gure erantzunetako bat eta Bordeleko Global Economy Social Forumetarako gure ekarpen txikia. —





Asier Altuna ZINEMA ZUZENDARIA

“Orain ez diot buruari hainbeste buelta ematen; kasu gehiago egiten diot intuizioari”

Asier Altuna (Bergara, 1969) zuzendariak Karmele filma aurkeztu berri du Donostiako Zinemaldian, Telmo Esnalekin batera zuzenduriko *Aupa Etxebeste!* film luze eta arrakastatsuaren 20. urteurrenean. Tartean, lau dokumental, sei film labur eta beste hainbeste film luze batu ditu bere filmografiara. Inflexio puntu honetan, bere ibilbideaz, sorkuntzaz eta heldutasunaz hausnartu du. **AMAIA BALENTZIAGA**

Zerk erakarri zintuen Kirmen Uriberen nobelatik eta Karmele Urrestiren historiatic zinemara eramateko?

Familiaren historia asko harritu ninduen; batez ere, ikusi nuen oso bidaia potentea izan zela. Ondarroako etxetik bota, eta Iparraldean, Parisen eta Caracasen egon ziren, gero berriz ere, Bilbora itzultzeko. Bidaia guztian, elementu asko daude: gerratea, musika... Txomin Letamendi, Karmeleren senarra izango zena, tronpeta-jole profesionala zen. Alde batetik, Eresoinka musika taldearen folklorea zegoen, baina Txomin, aldi berean, jazzaren eraginpean hezitako musikaria zen. Horrez gain, zerbitzu sekretu amerikarrentzat egin zuen lan Txominek; Karmeleren anaia gudarien kapitaina izan zen; eta beste bat Ezkabako kartzelan egon zen. Beraz, istorioa bera oso zinematografikoa iruditu zitzaidan; nire sentsazioa zen abentura eta gai interesgarri asko zeudela.

Hori izan zen lehen inpresioa. Gero, noski, arazoak hasi ziren, istorio hori idatziko nuela erabaki nuenean. Arazoa zen hori guztia ezin zela film batean sartu, oso zaila zela dena kontatzea, eta ez zela komenigarria ere. Gai eta abentura asko zeuden, baina nik istorioa pertsonaien bitartez kontatu nahi nuen. Orduan, gidoia egiten hasi nintzen, eta egin behar izan nuen lan nagusia izan zen elementuak kentzea eta ikuspuntua zein izango zen erabakitzea. Horregatik mugatu behar izan nuen filma denboran.

Filmak gerra, erbestea, amodioa eta artea (musika) uztartzen ditu Paris eta Caracas bezalako lekuetan. Zeintzuk izan dira erronka tekniko eta artistiko handienak garai historiko bat eta hain anitza den unibertso bat pantaila handian birsortzerakoan?

Produkzio aldetik, oso film potoloa da. Aurrekontu handiko filma da, eta lokalizazioak bilatzen lan handia egin

dugu. Garaiko filmak direnean, lokalizazioak oso garantzitsuak izaten dira, gero postprodukzioan digitalki lan gehiegi ez egiteko.

Aldi berean, lan handia egin dugu argazki zuzendariarekin, talde artistikoarekin eta beste askorekin, filmaren tonua garai eta toki bakoitzean finkatzeko. Lan horrek zentzu handia ematen die bidaieri eta, azkenean, baita pertsonaiei ere. Egoerak eta inguruneak berak harrapatzen zaitu, eta pertsonaiei bide hori egiten laguntzen die, bidaia emozional hori, alegia.

Eta nik uste dut film honetan egin dugun gauzarik onena aurre-produkzioa izan dela: filmatzera joan aurretik lan asko egitea. Horri esker, filmaketara oso ondo prestatuta iritsi ginen. Filma ondo lotuta zegoen, musika guztia grabatuta genuen, lokalizazioak erabakita, aktoreekin entseatuta... Egia esan, errodaiea oso ondo joan zen.

Euskal Herrian komedia sozial arrakastatsu bat (*Etxebeste saga*) eta drama existentzial eta poetiko bat (*Ama-ma*) egiteko gai izan den zuzendari bakarrenetakoa zara. Zerk eramaten zaitu umorera edo dramara istorio bat kontatzeko orduan?

Argi eta garbi, Telmok eramaten nau umorera. Barre asko egiten dut berarekin, eta film laburrak egiten hasi ginenean konplizitate handia genuen. Egia esan, gure hastapenak hor daude: film labur horiek, Brinkola... Eta, noski, *Aupa Etxebeste!* ere komediatik asko du. Hala ere, film horretan badago kutsu sozial bat eta kritika bat ere. Azken finean, film onak egin nahi ditut. Hori izan da nire erronka hasieratik: film txukunak egitea eta istorioak ahalik eta ondoen kontatzea.

Garai batean, Telmorekin bide bat eta film mota jakin batzuk egin nituen, baina gero bakoitzak, Telmok eta biok, gure aldetik filmak egiteko apustua egin genuen: bakoitzak bere filmari bakarrik aurre egitea, istorioak barrutik kontatzea... Dena den, askotan faltan botatzen nuen bera ondoan izatea errodaiean, askotan errazagoa delako prozesua elkarrekin egitea. Bakarrik aurre egiten diozunean, erronka handiagoa da; zuk hartzen dituzu erabaki guztiak, gaiari buruzkoak eta bestelakoak, eta filma zurea da erabat.

Beraz, elkarrekin lan egiteak istorio mota jakin batzuk kontatzera eramaten gintuen, eta bakarkako lanean, bakoitzak beste bide bat hartu genuen.

Aurten 20 urte bete dira Aupa Etxebeste! fenomeno-tik, zure lehen film luzetik. Begiak itxi eta 2005eko Zinemaldi hartara itzuliz gero, zer datorkizu burura?

Nik *Aupa Etxebeste!* aukera bat bezala gogoratzen dut. Gure lehen filma zen, guk idatzitako gidoi batetik abiatuta, eta erronka handia izan zen errodaiea eta dena planteatzea. Oso serio hartu genuen lana, biok. Gero,

“Sentitzen dut istorioak kontatzeko erraztasun handiagoa dudala orain, lehen agian ez nuena”

Zinemaldiko estreinaldia gogoratzen dut, oso polita izan zena. Gure lehen film luzea izanik, Zuzendari Berrien sailean sartu gintuzten, eta irabazi egin genuen Gazte Epaimahaiaren saria. Flipatu egin genuen saria jaso genuenean! Anjelica Hustonek eman zigun saria. Gu baino buru bat altuagoa zen. Gerritik heldu genion, pozik, momentuaz gozatzen. Gazteak ginen, eta izugarri ondo pasatu genuen.

Horren ondoren, aretoetan izandako arrakasta ere gogoratzen dut, nola etortzen zen jendea. Eta, azkenik, mundu osoko zinema jaialdietara joan ginen filmarekin. Gogoan dut, esaterako, Shanghain aurkeztu genuenean. Han konturatu nintzen txinatarrek ere barre egiten zutela gure umorearekin. Proiektzioa amaitu zenean, areto handi hura beteta zegoen, eta jendeak autografoak eskatzen zizkigun. Nik barre egiten nuen, ezin sinetsita. Horrelako bidaia pila bat egin genituen; esperientzia ederra izan zen.

Hogei urte hauetan, nola aldatu da Asier Altuna zinemagile gisa?

Uste dut orain pazientzia handiagoa dudala; nabari da ez daukadala presarik gauzak egiteko. Gauza bakoitzak bere unea duela ulertzen dut, eta gaztetan izan dezaitezun antsietate hori ez da jada hainbestekoa. Gauzak patxadaz egiten ditut. Sentitzen dut istorioak kontatzeko erraztasun handiagoa dudala orain, lehen agian ez nuena. Ez diot buruari hainbeste buelta ematen, eta agian, tarteka, kasu gehiago egiten diot bihotzari edo intuizioari, beste ezeri baino.

Ba al duzu proiektu berririk esku artean edo buruan bueltaka?

Une honetan gidoi bat amaitzen ari naiz. Berez, aspalitik neukan beste film baterako gidoi bat idatzita, oso ona iruditzen zitzaidana martxan jartzeko, baina Karmelek aurrea hartu zion. Orain, gidoi hau bukatuta koan, finantzaketa bilatzen hasiko naiz.

Zure ibilbidean zehar, izan duzu loturarik kooperatibismoarekin?

Gogoan dut Arizmendiarrietari buruz zerbait egiteko egon nintzela eta ikertzen hasi nintzela, baina, gero, gauza bat dela eta bestea dela bertan behera gelditu zen proiektua. —

Bilbao-Bizkaia Digital Factory

Lancor eta Consonni eraikinak berreraikitze simulazioa.

JOAN DEN EKAINEN ZORROTZAURREN AURKEZTU ZEN MONDRAGONEK MONDRAGON UNIBERTSITATEA ETA IKERLANEN BITARTEZ PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTU HAU. ASMO HANDIKO EKIMENA, 20 MILIOI EUROTİK GORAKO INBERTSIOA DAKARRENA ETA TEKNOLOGIA DIGIALETAN TALENTUA ETA BALIO ERANTSI HANDIKO ENPRESAK ERAKARTZEKO GUNEA GARATZEA AHALBIDETUKO DUENA.

Proiektu honek erreferente izan nahi du teknologia digitalaren eta ekintzailatza kooperatiboren esparruan. Ezagutza, teknologia, talentua eta enpresa uztartuko dituen espazio bat izango da, MONDRAGONEK etorkizuneko estrategia erakitze oinarri izango dituen lau zutabe nagusiak. Asmoa da teknologia digitalen arloan espazio aitzindari bat sortzea —hala nola adimen artifizialean, datuen analitikan, zibersegurtasunean, humanitate digitalean, mekatronikan, robotikan eta energia-sistema adimendunetan, besteak beste—.

Berrikuntza kolaboratiboko espazio bat

Lehenengo fase honetan, Lancor eta Consonni eraikinak berreraikiko dira, 7.526 m²-ko eta 4.281 m²-ko bi liburu ki huts sortuz. Eraikinetan, ikerketa- eta prestakuntza-laborategien espazioak proiektatzen dia, baita enpresentzat pentsatutako espazioak ere.

Une honetan, eraikinak 2026ko lehen seihilekoan hasi ahal izateko beharrezkoak diren lizentzien izapideak kudeatzen ari dira.

Zorrotzaurreko gune berria dinamikoa eta lankidetzara irekia izango da, eta kooperatibek talen-tuarekin konektatu ahal izango dute, berrikuntza sustatuko duten proiektuak partekatzeaz gain.

Proiektua lankidetzara publiko-pribatuko eredu baten baitan garatuko da; MONDRAGONEK, Bilboko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskadiko Parke Teknologikoek eta Eusko Jaurlaritzak hartuko dute parte bertan.

Bixente Atxa

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO EZAGUTZA DIBISIOKO LEHENDAKARIORDEA
ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

“Ezagutza-eragileen eta enpresa-munduaren arteko topagunea izango da”



Zergatik abiatzen da proiektu hau?

Etorkizunerako proiektzio-ariketa bat egin dugu, gizartearen beharrei aurre hartzeko eta ekonomiari aberastasuna sortzen laguntzeko. Proiektuak bi kezka nagusi ditu: profesional gazteen kopurua murriztea eta teknologia digitalek enpresa-lehiakortasunean gero eta garrantzi handiagoa izatea. Eta horren helburua da Zorrotzaurre erakarpen, talentu-garapen eta negozio-aukera berriak sortzeko gune bihurtzea eremu digitalean.

Zeintzuk dira proiektuaren elementu bereizgarriak?

Lehenik eta behin, bere izaera kolaboratiboa; Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan proiektu bakarra osatzen dute. Eredu horretan, unibertsitateen, zentro teknologikoen, enpresen eta erakunde publikoen baturak asmo handiagoko eta talentuarentzat askoz erakargarriagoak diren proiektuak sortzeko aukera emango digu.

Bigarrenik, digitalaren sektorean nazioartean erreferenteak diren beste unibertsitate-poloekin konektatuta egotea. Era berean, sare global bat sortzea da helburua. Lankidetzaren bidez, sarearen nazioarteko erreferentzialtasuna sustatuko da, eta, aldi berean, gune bakoitzak tokian tokioan eragin argia izatea nahi dugu.

Eta hirugarrenik, ezagutza-eragileen eta enpresa-munduaren arteko topagunea izatea. Euskadiko enpresentzat estrategikoak diren eremuetan oinarritutako lankidetzak.

Eta eraldaketa digitalarekin oso lotuta.

Hala da. Industriari oso lotuta dauden eremu digitalean jarri nahi dugu arreta, uste baitugu Euskadik Industrian duen espezializazioagatik proiektu erreferente bat erakitzeke aukerak izan ditzakeela.

Proiektuak beste sektore batzuk ere hartuko ditu, jakina, baina erreferentzialtasuna gure enpresentzat estrategikoa den horretan bilatu behar da. ■



Pello Rodríguez,
Bilbao-Bizkaia
Digital Factory
proiektuaz,
lehendakariarekin,
Bilboko
alkatearekin,
Bizkaiko ahal-
dun nagusiarekin
eta Industriako
sailburuarekin.

Zorrotzaurre esparru digitalean talentua erakartzeko, garatzeko eta negozio-aukera berriak sortzeko gune bihurtzea du helburu proiektuak.

Lander Beloki

Enpresagintzako [Mondragon Unibertsitatea] dekanoa



GARAPEN JASANGARRIAREN GAINEKO ERAGINA (SDIM25): ZER BERRI?

Irailak munduaren erdigune bihurtu zuen New York. Alde batetik, NBERen Batzar Nagusia, tentsioz betea eta giro politiko gogor eta polarizatuak markatua.

Israelgo armada Gazan egiten ari den genozidioa izan zen eztabaiden ardatz nagusia. Trumpen eta Netanyahuren hitzaldiek argi utzi zuten bizi dugun une geopolitikoaren gogortasuna.

Aldi berean, hirian Garapen Iraunkorrari buruzko Eraginaren Bilerak 2025, SDIM25 izenekoak zeuden. Gobernu, enpresa, unibertsitate eta gizarte erakundee-tako mila ordezkari baino gehiago bildu ziren han. Topaketa hau termometro global moduko bat da: beldur handiak eta baita etorkizunerako aukerak ere mahai gainean jartzen diren espazio bat.

Zalantzak eta aukerak

Deigarria da nazioarteko ezegonkortasun politikoa ia esku-hartze guztietan presente egotea. Aliantza ahulak, egun batetik bestera norabidea aldatzen duten ekonomiak eta lehengo indarra ez duen multilateralismoa daukan mundu batean bizi garela errepikatzen den ideia. Badirudi edozein txinpartak potentzien arteko tentsioak larriagotu ditzakeela.

Trantsizio energetikoari buruzko eztabaida ere argi geratu da. Galdera sinplea baina erraldoia da: nola bermatzen dugu energia nahikoa den klima aldatetaren aurkako borroka alde batera utzi gabe? Teknologia berriez

eta sistema erresistenteagoak indartzeko moduz hitz egin zen. Bereziki hunkigarria den datu bat: klimatik eratorritako osasun arazoak 1,5 bilioi dolar baino handiagoak izan daitezke 25 urte eskasetan.

Teknologiari dagokionez, adimen artifiziala izan zen protagonista. Mundu guztiak onartzen du bere potentziala, baina, aldi berean, segurtasuna ziurtatuko duen egitura falta izugarria dago. Erakundeek %10ek soilik du IArengoz gogortasuna serioa, eta %1ek baino gutxiagok erabiltzen du modu arduratsuan hasieratik amaierara. Argi dago arau argiak behar ditugula berrikuntzak aurrera egin dezan, gizartearen konfiantza arriskuan jarri gabe.

Alde ekonomikoak ere ez zuen baikortasun handirik ekarri: kontsultatutako ekonomialari nagusien %72k hazkunde txikia aurreikusten du. Hala ere, itxaropen izpi bat egin zen: Asia eta Ipar Afri-

kako ekonomia emergenteak dira gurtari tira egingo diotenak, nahiz eta herrialde garatueta egotira dezente ahulagoa izan.

Azkenik, funtsezkoa dirudien gai bat talentuarena eta enpleguarena da. Industria enpresa askok ez dute profil kualifikaturik aurkitzen, eta gehien harritzen duen datua da Z belaunaldiaren %40 baino gehiago sektore horretan datozen hilabeteetan lana uztea pentsatzen ari dela. Hori enpresek eskaintzen dutenaren eta gazteek bilatzen dutenaren arteko desko-nexioaren adierazle argia da.

Azkenean, sentsazio orokorra da dena lotuta dagoela: klimak, ekonomiak, geopolitikak, teknologiak eta enpleguak puzzle bera osatzen dute.

Hori konpontzea ez da erraza izango, baina argi dago ez dagoela konponbiderik lankidetzarik gabe eta epe luzerako begiradarik gabe. —

“Sentsazioa orokorra da dena lotuta dagoela: klimak, ekonomiak, geopolitikak, teknologiak eta enpleguak puzzle bera osatzen dute. Hori konpontzea ez da erraza izango, baina argi dago ez dagoela konponbiderik lankidetzarik gabe eta epe luzerako begiradarik gabe”



MONDRAGON

PERTSONAK ERDIGUNE

Begi-ninia.

Zilborra.

Eguzkia.

Itsasargia.

Amaraunaren korapiloa.

Bihotza.

Erdigunea.

Erdigunea, oreka ere bada.

Egonkortasuna.

*Begirunea izatea, norbera zaintzea
eta besteak zaintzea.*

Parte hartzea.

Erabakitzea.

Orainaren eta geroaren protagonista izatea.

Proiektuaren arima.

Pertsonez ari gara.

Pertsonak dira abiapuntua.

Pertsonak dira helburua.

Eta batez ere, bidea.



QR honekin bideoa
ikus dezakezue

ERALDAKETA METODOLOGIKOA, ERALDAKETA ARKITEKTONIKOA

DBHko 3 eta 4. mailak, eta batxilergoko 1 eta 2. mailak osatzen dute IZEN egitasmoa. Ikaslea hainbat egoera eta erronka ezberdinen aurrean jartzen du Arizmendi Ikastolak hezkuntzaren etapa honetan. Norbere buruaren eta inguruaren ezagutzatik abiatuz, erabaki kontzienteak hartuko dituzten herritar euskaldun konprometituak garatzen laguntzea du helburu Arizmendi Ikastolak IZEN egitasmoaren bitartez.

GORKA ETXABE



Espazio berriak estreinatu dituzte Arizmendi Ikastolako Almen eta Gaztelupe guneetako DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasle eta irakasleek. Dotoreak, praktikoak, metodologia berriari egokituak. Gehiago dirudi Norvegia Debagoiena baino. Espazio irekiak, altura ezberdinak, harmailak, bilera gela itxiak, irekiagoak, proiektuak partekatze guneak eta irakasleen espazioa, bertatik bertara, irekiago, gertuago. Sasoi hori aspaldi igaro duen batek esango lukeen bezala. Zenbat aldatu den irakaskuntza!

“Ko-irakaskuntza lan egitea ezinbestekoa izango da IZEN egitasmoan eta horretarako espazioak egokitu behar dira, arkitektura berria inplementatuz”. Aitor Ziardegik eta Alaitz Martinezek argi dute irakaste-ikaste prozesuaren ‘iraultza txiki’ baten aurrean daudela. Guztiak egokitu beharko dira, irakasleak eta ikasleak, era berean, proportzioan. Eta horretarako, dudarik gabe, espazioak eraldatu dituzte. “Espazioak aukera eman behar digu proiektuak taldeka lantzeko, leku irekiagoak proiektuak azaldu ahal izateko eta, noski, badira beste eduki batzuk, estilo klasikoagoan, magistralean eskainiko direnak eta horiek eskaintzeko ikasgela itxiak ere beharko ditugu”.

Ko-irakaskuntza jardutea da helburua, irakasle bat baino gehiago ikasleekin lanean, aldi berean, hartu-emanen, edukien lanketan. “Ez digu azaleko edukiak balio, sakontasunerako espazioak behar ditugu, klase magistralek ere pisu gehiago hartzen baitute. Hau da beste aldaketa bat. Edukietan janztea ezinbestekoa da. Proiektu ezberdinetan aritzeko eta kritikotasuna lantzeko. DBH4n sakontasun gehiago eskatzen diegu eta analisirako espazioak sortu beharra geneuzkan”. Eta sortu dituzte, bai. Almen eta Gaztelupeko DBH 3 eta 4 guneak dotore daude orain. Irekiak, egurraren goxotasuna eta kristalaren argitasuna nahastuz.

Metodologian aldaketa sakona

PROIen bitartez edukiak mobilizatzen jakitea eskatzen diete ikasleei. “Proiektuak garatzea inportantea izango da, sakontasunez. Matematika hizkuntzarik gabe ezin duzu zientzietan eraiki. Hizkuntza horiek landu egin behar dira. IZENen konturatu gara zientziak ere

baduela hizkuntza bat eta fisika, kimikako prozesuak ere garatuko ditugu. Ez dugu hankamotz geratu nahi diziiplina ezberdinetan”. Hala, prozedurazko edukiak (gaitasunak garatzeko programazio didaktikoan definitutako eduki mota) arlo guztietan landuko dituzte.

Azterketek presentzia gehiago hartuko dute, nahiz eta ez diren kalifikazio erreminta bakar bezala erabiliko. Hala, IZEN PROIetan ere test une batzuk aurreikusen dituzte. “Lan ona egiteko test horiek gainditu beharko ditu ikasleak”, diote Aitorrek eta Alaitzek.

Barne sendotasuna

Garapen pertsonaleko saioak eta barne sendotasuna barneratzekoak ere garrantzitsuak izango dira. “Adinera nola egokitu? Meditazioa, lasaitzeko arnasketak, yoga... Autoestimua landu behar dugu. Ikasle askok ez du sinisten meditazioan baina bada bide bat antsietatea lantzeko. Arazo mentalak sasoi honetan sortzen dira eta horri aurre egin behar diogu”.

Ko-irakaskuntza praktikan

Ko-irakaskuntza, 2 irakasle eta 60 ikasle baldin badaude, liberatu daiteke bat tutorizaziorako eta pertsonalizazioan sakontzeko. Aldaketa ez da edonolakoa izango eta eraldaketaren mesedetan, HUHEZiren laguntzarekin dihardute Arizmendi Ikastolako irakasleek. Almenen eta Gaztelupen gaur egun sei linea ditu Arizmendik, guztira 225 ikasle gutxi gorabehera.

Eraldaketa honetan guztian bost ikastola ari dira lanean: Orio, Tolosako Laskorain, Oñatiko Txantxiku, Anoeta eta Arizmendi Ikastola. “Irudikapenean, diseinuan, ekoizpenean ere elkarrekin aritu gara. Dimentsioan, baliabideetan aukera gehiago ditugu orain”. Aldaketarako ekoizpena Otoran egin dute irakasleek, MONDRAGONen Ezagutza Dibisioan barne. “Otoran aritu gara lanean, modu oso eraginkorrean eta asko eskertzen da horrelako espazio batean lan egitea”. —

Ko-irakaskuntza jardutea da helburua. Irakasle bat baino gehiago ikasleekin lanean aritzea, aldi berean, hartu-emanen eta edukien lanketan.



Lanbidea duintzea, Mundukideren eta Kolonbiako ofiziozko birziklatzaileen helburua

Legeak babestu arren, errealitateak, egunerokoak, behin eta berriz zaplaztekoa ematen die. Kolonbiako birziklatzaileak dira. Umetatik. Ofizioa, kalea eta lanbidearen gogortasuna txikitatik bizi izan dute. Haien amak ere birziklatzaileak ziren, eta haiek ez dute beste aukerarik izan.

GORKA ETXABE

Jenny Marcela Chachinoy, Yineth Mendoza eta Alexandra Uni Rosero duela gutxi Euskal Herrian izan ziren, Mundukidek gonbidatuta, birziklapenari eta ekonomia zirkularrari buruzko hainbat esperientzia ezagutzeko. Helburua, ideiez blaitzea, beren herrialdean birziklatzaile lanbidea duintzen jarraitzeko, bakoitzak bere erakundean duen posiziotik.

Esperientzia kooperatiboa eta MONDRAGONen eredu bertatik bertara ezagutzeaz gain, Jennyk, Yinethk eta Alexandrak materialak birziklatzeko eta berrerabiltzeko hainbat instalazio espezifiko bisitatu zituzten.

Iruñean Traperos de Emañen hasi zuten bisita, eta Kooperaren Mungiako, Bilboko eta Gasteizko instalazioetan izan ziren. Erakunde horiek ingurumen-zerbitzuen, berrerabileraren eta birziklapenaren (ehungintzan espezialistak) arloko enpresa-jarduerak garatzen dituzte, baita kontsumo jasangarria (Koopera Store dendak), pertsoneri arreta ematea eta bestelako zerbitzuak ere, gizarte ekologikoago, inklusiboago eta so-

lidarioago bat bultzatzeko. Eroski ere bisitatu zuten, Hiruatxeko kideekin eta Aretxabaletako Udaleko ordezkariekin elkartu ziren eta Otorako Kooperatiba Formazio Zentroan egon ziren. Bertan, TU Lankideak haiekin hitz egiteko aukera izan zuen, Kolonbiako birziklatzaileen egoerari eta Mundukide haien elkarrekin garatzen ari den proiektuari buruz.

Zer da Kolonbian birziklatzaile izatea?

Kolonbian materialen %15 baino ez da birziklatzen, eta birziklatze-sistemak ez du zerikusirik hemen ezarritako sistemarekin. Kolonbiako birziklatzaileok eskua poltsan sartzen dugu. Ez da jatorrian sailkatzen. Bizirauteko birziklapenaren menpe soilik gauden pertsonak eta erakundeak gara. ARSOCen (Kolonbiako Hego-mendebaldeko Birziklatzaileen Elkarte) zazpi erakunde gara, lau eskualdetan ia 500 ofiziozko birziklatzaile ditugunak. Kolonbian, birziklatzaileak (%76 emakumeak dira) zabortegetan sortu ziren, zaborra azkenik uzten

den lekuan. Zabortege horiek ixtearekin batera, birziklatzaileok hirira joan ginen, eta gure egunerokoa lana kaleetan egiten dugu. Gobernuak ofiziozko birziklatzaile gisa aitortzen gaitu. Estatuak babestuta gaude. Bizirauteko gutxieneko bat dugu, baina askoz ere laguntza handiagoa behar dugu lanbidean aritzen jarraitu ahal izateko.

Nolakoa da birziklatzaile baten eguna?

(Alexandra Uni Rosero, ARSOCeko lehen legezko ordezkaria eta Girasoles Elkartearen kidea). Nik due-la zazpi urte ezagutu nuen lan hau. Nire amak kartoia biltzen zuen, beste emakume batzuek bezala, eta ni berarekin joaten nintzen bilketara. Bildu ondoren, kartoia biltegizainei saltzera joaten ginen (kartoia nahi duten prezioan ordainduta erosten duten biltegizain independenteak), ez prezioari buruz ez baldintzei buruz gehiegi jakin gabe. Eta horrela egunero, inolako babesik gabe eta nahiko estigmatizatuta. Jendea gutaz baliatzen da, eta askotan engainatuta sentitzen gara.

Nola ezagutu zenuten Mundukide eta noiz hasi zintzen antolatzen eta gauzak aldatzen saiatzen?

Denbora honetan antolatzen saiatu gara, askotan bildu gara denon artean lanbidea duintzen saiatzeko, administrazioari presioa egiteko eta kolektiboaren aldatetaren buru izateko. Fase horretan Mundukide ezagutu genuen, zehazkiago Mauricio Rasero, Mundukideko langilea Kolonbian. Berak prestakuntza eman zigun, hainbat esperientzia erakutsi zizkigun eta gure eskubideak zeintzuk ziren adierazi zigun. Orain, elkarrekin nahi dugu gure jendeak prestakuntza jaso dezala eta bere lana ezagutza eta berme handiagoz kudea dezala. Bildutakoaren arabera kobratzen dugu. 30.000 peso kolonbiar (eguneko lau euro, gutxi gorabehera).

Prestakuntza, beraz, funtsezkoa da zuentzat.

Zalantzarik gabe. Zentzu guztietan zaurgarriak gara, baina ulertzen dugu gure tresnarik onena prestakun-

tza dela. Mundukideren eta ARSOCen arteko harremanaren bidez, eta José Luis Lejardiren (Mundukide) koordinazioarekin, gero eta hobeto antolatzen ari gara. Batzorde ekonomiko-finantzarioa sortu dugu eta finantza-kontua askoz hobeto kudeatzen dugu. Sistema, birziklapenaren industria, oso konplexua da. Bitartekariak daude eta merkatua oso maiz aldatzen da. Ekonomia zirkularra birziklatzaileen eskuetan hasten da eta industrian amaitzen da. Era berean, arau-esparru oso zabala dugu. Birziklatzailearen babesa dugu, Birziklatzaileen Elkarre Nazionala, baina azkenak izaten jarraitzen dugu. Operadoreak zatirik handiena jasotzen du materiala lurperatzeagatik, eta guk gutxienekoa materiala berreskuratzeagatik.

Kolonbiako edukiontzien sarea jartzeak zuen lanbidea desagertzea edo berrantolatzea ekarriko luke.

Birziklapena bai, baina ofiziozko birziklatzaileekin. Ez dugu onartuko edukiontzia jartzea. Aurka gaude. Edukiontzia jartzen badituzte, lanik gabe eta bizitzeko gutxienezko gabe geratuko gara. Kartoia eta plastikozko botilak dira gehien birziklatzen direnak. Kolonbiako birziklatzaileen kolektiboak 10.000 pertsona baino gehiago ditu, eta behar duguna da Administrazioak gu aitor gaitzala eta industria honetan lan egiteko eskusibotasuna eman diezagula, salmenta bermatuko duten baldintzekin. Sektoreko erakundeek bakarrik izan beharko genuke lanbide honetan aritzeko baimena. Gobernuak dekretu bat onartu zuen hala izan zedin, baina enpresa handiek dekretua salatu zuten eskusibotasunaren gaiagatik. Oposizio handia dago.

Nola hobetu daiteke?

Proiektuak aurkezten ditugu. Prestakuntza bultzatzen dugu. Politika publikoetan parte hartu nahi dugu. Mundukide honetan guztian laguntzen ari zaigu. Taldea txikia da, baina gure presioa eta lana egiten jarraitu behar dugu, prestakuntza eta baliabide gehiago bultzatuz. Ez dago trinkogailurik, ez

kamioi edo ordenagailu egokirik. Material falta dugu eta hobeto hornituta egon behar dugu. Oso eskertuta gaude Mundukiderek, lanean ari dira gure baldintzak hobeto daitezen eta geu izan gaitezen gure etorkizunaren hobekuntzaren protagonista. —

Kolonbiako birziklatzaileen kolektiboak 10.000 pertsona baino gehiago ditu, eta behar duguna da Administrazioak gu aitor gaitzala eta industria honetan lan egiteko eskusibotasuna eman diezagula, salmenta bermatuko duten baldintzekin.

AUKERAK ETA ERRONKAK KLIMA-ALDAKETARI AURRE EGITEKO

2025eko azaroan Belém (Brasil) egingo den COP30 funtsezko hitzordua izango da klima-aldaketari aurre egiteko. Baina zer dira COPak eta zergatik dira hain garrantzitsuak? Urtero ia 200 herrialde biltzen dituzte, eta helburua mundu mailako ahaleginak koordinatzea da. Hortik sortu ziren nazioarteko hitzarmen nagusiak, hala nola Kiotoko Protokoloa eta Parisko Akordioa, zeintzuek helburu komunak eta konpromiso nazionalak [NDCak] ezarri baitzituzten.

IBON ANTERO MONDRAGONEKO IRAUNKORTASUNAREN ETA GIZARTE ERALDAKETAREN ARDURADUNA



Belém, Pará estatuan, Amazonas ibaiaren bokalean dago. Hiri bizia eta kontrastez betea da: kultura-aberastasuna eta hirigintza-gabeziak nahasten dira, eta, horrez gain, klima-aldaketarekiko ahultasun handia du. Amazonian COP30 egitea sinbolikoa da: Amazonia planetako ekosistema mehatxatuenetako bat da, eta, era berean, CO₂ kopuru izugarriak xurgatzen ditu.

Erronkak

Klima-aldaketari aurre egiteko orain arteko aurrerapenak nabarmenak dira. 2024an, munduan 741 GW energia berriztagarri berri instalatu ziren, urte bakarrean izan den inoizko hazkunderik handiena. Horren %60 inguru Txinak jarri zuen, eta herrialde horrek konpromiso klimatiko zehatzak hartu ditu berriki. Gainera, energia berriztagarriek dagoeneko munduko elektrizitatearen %30 gaingitu dute, eta aurreikuspenen arabera, 2028rako kuota hori %42tik gorakoa izango da. Halaber, Brasilen, Amazoniako baso-soiltzea %30,6 jaitsi zen (6.288 km²), eta horri esker 359 milioi tona CO₂ isurtzea ekidin zen. Bestalde, 2022an herrialde garatuek 115.900 milioi dolar mobilizatu zituzten garapen bidean dauden herrialdeentzat, 100.000 milioiko helburua gaingituz, eta 2023an banku multilateralek errekorra hautsi zuten: 125.000 milioi dolar bideratu zituzten klima-ekintzara.

Hala ere, erronkak handiak dira oraindik, eta bide zaila dugu aurretik. Maila globalean, isuriek oso altuak izaten jarraitzen dute berotze-egoera arriskutsuak saihesteko: gaur egungo ibilbideek oraindik ez dute bermatzen mundua industria aurreko mailekiko 1,5 °C-tik behera egongo denik. Amerikako Estatu Batuak berotegi-efektuko gasen bigarren isurtzaile handiena da, eta bigarren aldiz baztertu du Parisko Akordioa.

Klima-aldaketara egokitzeko finantzaketa eskasa da: 2030erako urtero 387.000 milioi dolar beharko lirakeela kalkulatu da, baina 2022an 32.400 milioi baino ez ziren bideratu. Nahiz eta berriztagarrien hazkundera ikusgarria izan, herrialde askok ez dute oraindik behar besteko azpiegiturarik, finantzaketarako sarbiderik edo politika argirik. Horrez gain, baso-soiltzeak eta suteek karbonoa xurgatzeko ahalmena murrizten jarraitzen dute.

Askok COP30etik espero dugun emaitza argia da: isuriak murrizteko konpromiso anbizio handiagokoak, finantzaketa bidezko eta eskuragarria, Amazoniaren eta beste ekosistema kritiko batzuen babes eraginkorra, tokiko komunitateak erabakietan sartzea eta horiek betetzeko mekanismo sendoak. Belémgo erronka nagusia promesak ekintza zehatz bihurtzea izango da, lorpen horiek planetarentzat eta pertsonentzat benetako onura bihurtzeko ziurtatzea.

Eta kooperatibak zer?

MONDRAGON Taldeko kooperatibak duela urte batzuk hasi ziren karbono-aztarna neurtzen eta, kasu askotan, deskarbonizazio-ibilbidetan urratsak ematen. Iraileko MONDRAGON Ingurumen Foroan azken urteko datuak aztertu ziren, eta norabide onean goazela adierazten dute: azken urtearekiko %6,6ko jaitsiera egon da lehen eta bigarren irismeneko isurietan. Jaitsiera hori, hein handi batean, energia berriztagarrien kontsumoaren igoerari dagokio: talde osoan kontsumitzen den energia elektrikoaren %66 jada energia berriztagarria da. —

KOOPERATIBETAN ESG ESTRATEGIAK GARATZEKO LEHEN IKASTURTEA

27 kooperatibatako iraunkortasuneko 44 arduradunek parte hartu dute Mondragon Unibertsitateak martxo eta uztaila bitartean emandako ikastaro batean.

Helburua izan da ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-estrategia (ESG) negozioan txertatzea, CSRD edo VSME beza-lako arau-esparruei helduz, bai eta bezeroentzako ESG balorazio-plataformei ere (EcoVadis).

Saio hauetatik lau ondorio nagusi ateratzen dira: arriskuen eta aukeren diagnostikoak ekintza zehatz bihurtzeko beharra, ESG estrategia integratuaren garrantzia, erantzukizun argiak (gobernantza) definitzeko premia eta jasangarritasuna.

sun-txostenetan eredu kooperatiboaren balio bereizgarria eraginkortasunez komunikatzeko erronka.

Kooperatiba guztien artean etorkizun iraunkorra, arduratsua eta koherentea ehuntzen ari gara, araudia betetzea helburu eraldatzailearekin uztartzen duena. Eskerrik asko Mondragon Unibertsitateko irakasleei eta parte hartu duzuen guztiei zuen ekarpenagatik eta konpromisoagatik.



MONDRAGONEK JASANGARRITASUNA ETA DIGITALIZAZIOA SUSTATZEN DITU 34 MILIOI EUROTİK GORAKO INBERTSIOAREKIN PERTE FUNTSEN BIDEZ

Korporazioak, MONDRAGON Jasangarria eta MONDRAGON Digital proiektuen bidez, dozenaka kooperatiba mobilizatzen ditu trantsizio ekologikorako eta eraldaketa digitalerako funtsezko ekimenetan, Berreskurapen eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoen (PERTE) babes garrantzitsuarekin.

MONDRAGON Jasangarriak ingurumenarekiko eta gizarte eta genero-ekitatearekiko konpromisoa indartzen du, arlo horiek diagnostikatu eta hobetzeko lana eginez. Proiektuaren hiru fase onartu dira, 11.655.579,48 euroko baterako inbertsioarekin; horietatik 3.766.637,34 euro PERTEen finantzaketatik datoz.

MONDRAGON Digital abangoardiako esparruetan proiektuak sustatzen zentratzen da, hala nola Adimen Artifizial Generatiboan, Big Data Industrialean, biki digitalean, zibersegurtasunean eta prozesuen robotizazioan. MONDRAGONEk bost elkarte bultzatu ditu, hogeita hamar bat kooperatiba tartean direla. Ekimen horiek ia 23 milioi euro mobilizatu dituzte proiektu digitaletan, eta 4,7 milioi euroko laguntza eman diote PERTEk Gizarte Ekonomiari.



Ikasturte berriaren atarian

Ikasleentzat ez ezik, heldu askorentzat ere, euren buruari asmo eta erronka pertsonal berriak jartzeko abiapuntua da ikasturte berria. Helburu horiek, askotan, lanetik kanpo kokatzen dira, aisialdian, baina kooperatibetako kide askok laneko pasio eta dedikazio berarekin ekiten diete. AMAIA BALENTZIAGA

raila da askorentzat *benetako urte hasiera*, udako opor-
rak oroitzapen bihurtu eta errutina berreskuratzeko
dugun unea. Izan ere, sentimendu horren atzean arra-
zoi kultural, emozional eta biologikoak daude, opo-
rren osteko energia berritzailea aprobetxatzera bultza-
tzen gaituztenak.

Urtarrilean ez bezala, irailean denok batera itzultzen
gara laneko, eskolako eta gizarte jardueretako errutine-
tara, eta hasiera berri baten sentsazio kolektiboa sortzen
da. Gainera, emozionalki, udako etenaldiak eta desko-
nexioak aukera ematen digute atsedean hartzeko eta gau-
zak perspektibarekin ikusteko. Itzuleran, bulkada natu-
ral bat sentitzen dugu gure helburuak berraztertzeko
edo ahaztuta genituen proiektuei berriro ekiteko. Urtar-
rileko asmo idealizatuarekin alderatuta, iraileko helbu-
ruak zehatzagoak eta errealistagoak izan ohi dira, bene-
tako geldione batetik datozelako. Eta, nola ez, naturak
ere zuzenean eragiten digu: egun laburragoak eta aire
freskoagoak introspektiorako eta erritmo aldaketara-
ko bidea ematen baitigute.

Nork bere neurrian

Sarritan, gure helburu, proiektu eta erronka zahar eta
berriak ez dira lan arlora mugatzen; aitzitik, aisialdian
kokatzen dira nagusiki. Juan Carlos Perez, Mikel Campos
eta Malen Herruzo Díaz de Guereñu dira horren adibide.

Juan Carlos Perez Zabala, Txarly, Fagor Ederlaneko
bazkidea da. Hiru urte daramatza musika kontuetan
murgilduta, eta duela aste gutxi ekin dio ikasturte ber-
rari, gogoz eta ilusioz, Aretxabaletako Leizarra Musi-
ka Eskolan. Batek baino gehiagok pentsatuko du nahi-
koa erronka badela, hiru urteren ostean, ilusio eta gogo
berarekin solfeoa ikasten jarraitzea, eta, hein batean,
halaxe da. Izan ere, erreleboka egiten du lan Txarlyk,
baina zailtasunak zailtasun, hortxe dabil jo ta su, bere
burua aberasten duen erronka gisa hartzen baitu: “Gure
adinarekin zailagoa da ikastea, gehiago kostatzen zai-
gulako kontzeptuak barneratzea, baina bada modu bat
norbere burua gainditzeko; hortaz, oso pozik eta gus-
tura nabil”. —

Juan Carlos Perez

“Erronka pertsonal gisa hartu dut”

Juan Carlos Perez Zabala, Txarly, Fagor Ederlaneko bazkidea da. Hiru urte
daramatza musika kontuetan murgilduta, eta duela aste gutxi ekin dio ikas-
turte berriari, gogoz eta ilusioz, Aretxabaletako Leizarra Musika Eskolan.
Batek baino gehiagok pentsatuko du nahikoa erronka badela, hiru urte-
ren ostean, ilusio eta gogo berarekin solfeoa ikasten jarraitzea, eta, hein
batean, halaxe da. Izan ere, erreleboka egiten du lan Txarlyk, baina zailta-
sunak zailtasun, hortxe dabil jo ta su, bere burua aberasten duen erronka
gisa hartzen baitu: “Gure adinarekin zailagoa da ikastea, gehiago kosta-
tzen zaigulako kontzeptuak barneratzea, baina bada modu bat norbere
burua gainditzeko; hortaz, oso pozik eta gustura nabil”.

Solfeoaz gain, gaita jotzen ere ari da ikasten Juan Carlos: “Iaz eman nuen
izena, eta Arrasateko gaiteroen taldearekin aritzen naiz”. Epe laburrera be-
gira behintzat, ez du kontzerturik eskaintzeko asmorik, poliki-poliki bidea
egiteko baizik. “Ez daukat bat ere presarik, eta ez dakit inoiz kalean joko
dudan. Gaita jotzeko lau gauza eduki behar dituzu kontrolpean: digitazioa,
arnasketa, mingainaren posizioa eta putz egitea. Koordinazio lan itzela da,
baina ari naiz bidea egiten”, azaldu du Juan Carlosek.





Mikel Campos

“L’Altitoyn ez daukat lehiatzeko asmorik, disfrutatzeko baizik”

Mikel Campos Odriozolak, berriz, erronka berria du aurten esku artean. 33 urteko zumarragarra produktu garatzailea da Bexen Medical kooperatiban, baina kirola da bere pasioa. Udan, bizikletan ibiltzen da; eta neguan, eskia praktikatzen du. Datorren otsailean, bi urtez behingo L’Altitoyn mendi eskiko lasterketa egingo du, Luz Ardiden eta Tourmalet inguruan. Lasterketa handi hau Grande Course erronkaren parte da, Alpeetako beste bost lasterketekin batera. Kirolariak bi egunez aritzen dira bikoteka, foka larruak jantzita, Frantziako Pirinioetako mendate mitikoenetan gora eta behera.

Hori guztia dela eta, L’Altitoyn duen ospea irabazi du, eta gero eta zale gehiago dira desafio honi aurre egin nahi diotenak. Camposi duela denbora dezente zebilkion lasterketa hau egitearen ideia, eta orain oso motibatuta dago, zailtasunei aurre egin, mendia ezagutu eta gozatzeko gogoz: “Ez daukat lehiatzeko asmorik, disfrutatzeko baizik”. Hala ere, benetan gozatu ahal izateko, entrenatu egin du: “Udazkenean, bizikleta eta korrika saioak uztartuko ditut, eta abenduan, elurra egiten hasten denean, Jaca aldera joango naiz entrenatzera”.

Malen Herruzo

“Hizkuntzak etorkizunerako inbertsio bat dira”

Ilkasturte hasierako asmo pertsonalen artean, ordea, bada aisialditik urrundu eta lan mundura gerturatzen den ohiko erronka bat: hizkuntza berriak ikasi edo aurrez ikasitakoak hobetzearena. Izan ere, batzuentzat gustuko zaletasuna da, baina beste askorentzat etorkizunerako egiten den inbertsio eta esfortzu bat da, garapen profesionalarekin zuzeneko lotura duelako. Horixe da, esaterako, Malen Herruzo Diaz de Guereñuren kasua.

Bexen Cardioloko Kalitate eta Erregulazioko I+G teknikaria da, eta urriaren erdialdean, bere garapen profesionalari bultzada bat emateko, ingelesa hobetzeki ekingo dio. Bere asmo nagusia da lan eremuan trebetasun eta konfiantza handiagoa lortzea ingelesez hitz egiterakoan, baina, bigarren mailako helburu gisa ere, badu jomugan C1 maila eskuratzea. Horretarako, astean hiru ordu eskainiko dizkio, ordu eta erdiko bi klasetan banatuta, ilusioz eta konpromisoz.

Malen Herruzoren ustez, ingelesa menperatzeak ez dio soilik eguneroko lana erraztuko, baizik eta aukera profesional berriak ere zabalduko dizkio. “Badakit esfortzu bat eskatzen duela lan-orduetatik kanpo ikasten jarraitzeak, baina garapen pertsonal eta profesionalerako funtsezko tresna dela uste dut. Motibatuta nago erronkarekin”, azaldu du. ■



Denbora-pasak

Letra-zopa¹

Aurkitu Batz, Ondoan, Fagor Arrasate, Orbea, Kide eta Maier kooperatibek beren instalazioak dituzten Bizkaiko 6 udalerriren izenak.

Gurutzegrama²


HORIZONTALAK

- 1. Berriatuko (Bizkaia) kooperatiba honek duela gutxi ospatu du bere 50. urteurrena.
- 4. “Asistencia _ _ _ _ _” LagunAroren banaketako prestazioetako bat, gaztelaniaz.
- 5. Wild eta Rise, marka honen izenak dira.
- 6. Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren akronimoa, gaztelaniaz.
- 9. GKE honek bere lasterketa solidarioa ospatzen du urri honetan.
- 10. Ordizian (Gipuzkoa) kokatutako zentro teknologikoa.

BERTIKALAK

- 2. “_ _ _ _ _ zentroa”, Leartikerren esne-zentroaren euskarazko izena.
- 3. Oñatin (Gipuzkoa) kokatutako kooperatiba; enkofratuetarako hiru geruzako tau-lak egiten ditu.
- 7. MONDRAGON _ _ _ _ _ , Korporazioaren lan-ataria.
- 8. Jose Maria Arizmendiarrietaren bigarren abizena.

I	Y	O	F	Z	W	K	C	N	C	V	F	H
I	M	E	C	N	I	T	E	P	U	E	D	R
A	J	O	Z	R	U	G	G	K	T	M	G	N
O	I	N	F	Z	I	N	N	X	C	C	V	A
O	W	B	G	D	Z	P	E	A	S	U	Q	S
J	I	P	A	A	K	B	L	R	J	I	Z	A
A	R	D	R	L	A	R	P	V	G	A	G	T
C	Y	Z	U	R	L	Z	A	O	L	M	Q	O
I	X	A	R	M	A	A	R	V	Q	Z	P	K
V	Q	I	F	D	A	R	M	T	I	K	A	T
B	A	R	G	L	E	Z	V	R	J	H	A	V
T	N	J	K	A	U	T	A	I	R	R	E	B
Y	G	R	Q	C	Q	S	G	B	U	H	L	V



1. Letra-zopa | IGORRE | ZAMUDIO | ETXEBARRIA | MALLABIA | BERRIATUA | AJANGIZ
2. Gurutzegrama | HORIZONTALAK 1. KIDE | 4. SANITARIA | 5. ORBEA | 6. ACI | 9. MUNDUKIDE | 10. LORTEK
BERTIKALAK 2. ESNEKI | 3. LANA | 7. PEOPLE | 8. MADARIAGA

7 desberdintasun



Parte hartu nahi? Oso erraza da.

Mendirako Columbus produktu sorta zozketatuko dugu jeroglifikoak asmatzen dutenen artean.



Eskanea ezazu behean duzun QR kodea eta behin tulankide.com webgunean sartuta bertako galdetegia bete.



Hieroglifoa

Adinekoentzako eta mendeko pertsonentzako zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituen kooperatiba.



IZEN EMATEA

ikasleak 5€ 10€

www.mundukide.org

2025-10-19

Urkulu urtegia | Aretxabaleta | Gipuzkoa

MLS MUNDUKIDE X Lasterketa Solidarioa eman pausoa!



JAIOITZE URTEA

2004-2005-2006-2007 : 6.300m
2008-2009 : 1.500m
2010-2011 : 1.000m
2012-2013 : 500m
2014-2015-2016 : 100m

GAZTETXOAK

⌚ 10.00



Nordikoa
Publiko guztia

⌚ 10:30



Oinezkoa
Publiko guztia

⌚ 10:30



X3 Lasterketa
kooperatibak

⌚ 11:00

6.300 m.

Antolatzailea:



mundukide
kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

Laguntzaileak:

athlon
bizimodu
osasungarrien
sustapena

ULMA

ikerlan
MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

KONFEKOOP
Euzko Kooperatiboen Federazioa
Federación de Cooperativas de Euzkadi

wcloc
Bosque de la Urdia
Bosque de la Urdia

EROSKI
zurkin



Columbus
Bosque de la Urdia

rpk
Victoria

1900
dieciocho
noventa

Ausolan.

ORBEA

Anteaga

Aretxabaleta
Ustea

banka kooperatiboa

LABORAL kutxa

